

hh
hik hasi

Irakasleen zaintza

**Baso Bainu Zirkuitua naturan murgiltzeko
Hezkidetza-prozesuak martxan I: gakoak
eta ikaskizunak**

Gatazken bitartekaritza

EH Bilduren hezkuntza proposamena

Ekiñe Lopez Olabarria



“Ikaskuntza, ororen gaineratik,
gonbidapen gisa ulertzen dut”

MARINA GARCÉS

TOTOTOTO

Ane Labaka Mayoz
Mariñe Arbeo Astigarraga

Mihi puntan
hitzak trabatzen zaizkien
haurrentzako ipuina.



elkar

elkar

www.elkarargialetxea.eus

AURKIBIDEA

GAIA / 10

IRAKASLEEN ZAINZA

Irakasleen zaintzaren gaineko hausnarketa eginez amaitu zuen iaz ikasturtea **Hik Hasik**. Besteak zaintzeko nor bere burua zaindu behar duela izan zen atera zen ondorio nagusia. Horretarako beharrezkoak diren heldulekuak eta praktikak identifikatu zituzten eta orain hori guztia martxan jartzeko unea da.

ELKARRIZKETA / 18

MARINA GARCES

Guztion bizitzako esperientziak partekatuz elkarrekin eta elkarrengandik ikastea planteatzen du Marina Garcesek. Hori gauzatzeko leku modura Aprendizen eskola aurkezten du oraina ulertzeko eta etorkizuna irudikatzeke helburuz. Filosofoa eta unibertsitateko irakaslea da Garcés. Zaragozako unibertsitateko irakasle izan zen eta gaur egun UOC Universitat Oberta de Catalunya nabil eskolak ematen

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPIZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.
Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.
Inprimategia: ANTZA S.A.L
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2021-10-07).
Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Hau da unea: akordioaren ikasturtea hasi dugu

10 GAI NAGUSIA

Irakasleen zaintza

18 ELKARRIZKETA

MARINA GARCES

“Oraina ulergaitza bihurtzen denean, etorkizunak existitzeari uzten dio, eta uste dut hori ari dela gertatzen gaur egun geletan”

24 ESPERIENTZIAK

Baso Bainu Zirkuitua naturan murgiltzeko

28 EKARPENAK

Hezkidetza-prozesuak martxan I: gakoak eta ikaskizunak

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Gatazken bitartekaritza

36 GALDEIDAZU

Zein da EH Bilduren hezkuntza proposamena garai berrietarako?


39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Pump track-ak

42 ATZEKO ATETIK

Ekiñe Lopez Olabarria



Hau da unea: akordioaren ikasturtea hasi dugu

editoriala

ALDERDI POLITIKOEN GUTXITAN
BEZALAKO ADOSTASUNA ETA
BORONDATEA ERAKUTSI DUTE
HEZKUNTZA BLINDATZEKO EAE-N:
HEZKUNTZA HITZARMENA
JORRATZEKO NAHIA ERAKUTSI DUTE.



Hau da ikasturtea. Gakoa da abiatu berri dugun ikasturte hau. Hau akordioaren ikasturtea izan behar da, bai bederen Euskal Herriko zati batean, EAEn. Borondatea bada, nahia bada, beraz, ondo bidean, akordioa izango da.

Azken bi ikasturteak hezkuntzakoak ez ziren gaiek markatu zituzten, pandemiaren ondorioz. Protokoloak, kontingentzia-planak, termometroak, gel hidroalkoholikoak, distantziak eta maskarak izan ziren hizpide eta lerroburu. Oraindik ere hezkuntza beste eremu gehienak baino zorrotzago murriztuta dagoen arren —bereziki Hego Euskal Herrian— bestelako gaiek hartu dituzte ikasturte berri honen hasierako solasaldiak: hezkuntza gaiek.

Alderdi politikoen egin dituzte lehen urratsak, eta ia erabateko sintonia agertu dute: euskal hezkuntzaren kalitatea bermatuko den eszenatoki batera igarotzeko hitzarmena behar dela aldarrikatu dute Eusko Legebiltzarreko alderdi ia denek, hain zuzen ere, hezkuntza alderdikierietatik at egon dadin, bat datoz alderdiak. Hain aurreratu ikusten da bidea, ezen Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkulluk urtebete aurreratu duela hitzarmenaren ondorenerako pausatua dagoen hezkuntza legea, 2022rako.

Sintonian mintzo dira EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos. “Adostasunerako aukera handiak” daudela erakutsi dute. Une honetan alderdien artean dagoen giroa oso ona da”, adierazi du Jokin Bildarratz Hezkuntza Sailburuak. Hezkuntza hitzarmena lortzeko “borondate osoa” agertu dute EH Bilduk eta Alderdi Sozialistak,

“marra gorriarik gabe” egingo duela gogoeta aurreratu du EH Bilduk. Alderdi Popularrak eta Ciudadanos koalizioa da sintoniatik urrun dabilena.

EH Bilduk Hezkuntza Proposamena jarri du mahai gainean: *Hezkuntza sistema publiko burujaberantz* izenekoa. Euskal Herriaren garapen kolektiboaren zerbitzura egongo den hezkuntza sistema burujabea osatzea du helburu: euskalduna, hezkidetzalea, inklusiboa, parte hartzailea, laikoa, doakoa, herritarra eta publikoa (*Galdeidazu* atalean aurkeztu du proposamena EH Bilduko programa arduradunak).

Badira proposamen gehiago, oinarritik sortuak, hala nola, Plaza Hutsa plataformaren (*H)arian* dokumentua, EHIGE eta HEIZEren *Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar* txostena, LAB sindikatuaren *Hezkuntza burujabea iruten* txostena; Ikastolen Elkartearen *Endekalogo*, edota **Hik Hasiren Hezkuntza Proposamena**. Eusko Ikaskuntzak *Liburu Zuria* helburu abiatu duen prozesua ere helduleku garrantzitsua izango da.

Eta badira aurrekariak. 15 urte bete berri ditu Oinarrizko Hezkuntza Akordioak. Hezkuntza eragileak eta sentsibilitate politiko ugari adostasunetara iristeko gaitasuna erakutsi zuten 2006an. Nazio Garapenerako Biltzarrak osatutako Hezkuntza Batzordeak bultzatu zuen akordioa eta hezkuntza alorreko eragile eta ordezkari ugari sinatu zuten. Orain beste urrats bat egiteko unea da. Alderdi politikoei dagokie, baina ez haiei bakarrik, hezkuntzaz gogoeta partekatu eta adostasunetara iristeko garaia du hezkuntza-komunitateak. Hau da unea.

“Etorkinen euskalduntzea, hizkuntzaren berreskuratze-estrategia, orokor, planifikatu eta ofizial baten baitan ez bada egiten, urteak eta urteak segi dezakegu dirua eta energia xahutzen, baina ez dugu gure hizkuntza *normalizatuko*”

Edurne Alegria

HILEKO IRUDIA





HASI DA GOGOETAREN IKASTURTEA

Eseri, entzun eta solastatu. Hausnartu hezkuntzaz, partekatu eta elikatu. Horixe egin zuten 125 lagunek irailaren 11n Donostiako Eureka! Zientzia Museoan, Eusko Ikaskuntzak gonbidatuta. Abiapuntu bat izan zen. Hasi berri dugun ikasturtean horretarako abagune gehiago izango dira —izan behar dira!— euskal hezkuntzaren etorkizunerako gakoa izango baita abiatu berri dugun ikasturtea. Gakoa izango da eseri, entzun eta solastea. Eztabaidatzeko, bai, baina batez ere adosteko. Euskal hezkuntzaren oraina eta etorkizuna idazteko ariketa konplexuan ikasturte esanguratsua izango da hasi berri duguna.

Nazio mailako hausnarketa abiatu zuen, bada, irailaren 11n Eusko Ikaskuntzak. Hiru ardatz jarri zituen zarpiko multzotan bildurik zeuden 125 “zubigileen” gogoetarako: hezkuntza, aniztasuna berdintasunean; hezkuntzaren antolamendua; eta hezkuntza ezagutzaren jendartean. Eta gogo eta borondate bat jaso zuen, euskal hezkuntza norabide berrietara eramatekoa, korapiloak atzean utzita.

Hurrengo hitzordua finkaturik du Eusko Ikaskuntzak: urriaren 22an eta 23an sinposium bat egingo du Gasteizen. Hausnartzen, partekatzen eta elikatzen jarraitzeko. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Hezkuntza Hitzarmena adosteko ikasturtea izango da aurtengo. Eseri, entzun eta solastatzekoa. Handia da erronka.

Argazkia: Hik Hasi,
Donostian, 2021eko irailaren 11n

HIZPIDE IZAN DA

MUSUKOA EZ DA DERRIGORREZKOA IPARRALDEKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT

Ipar Euskal Herriko Lehen Hezkuntzako ikasleek ez dute musukorik erabili beharrik jada. Urriaren 4an sartu zen neurri berria indarrean Pirinio Atlantikoen departamenduan intzidentzia metatua 50etik jaitsi ondoren.

Nafarroan ere neurriak malgutuko dituztela iragarri dute eta Euskal Autonomia Erkidegoko eskoletan maskararen erabilera arintzeko eskatu diote Jokin Bildarratz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuari. LABlak urriaren 7an neurri orokorrak malgotu ostean, urriaren hirugarren asterako espero da Araba Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetara ere malgutzeak iristea.



ABIAN DA '#DAMOLAT', GAZTEEN ARTEAN EUSKARA SUSTATZEKO PROIEKTUA

Hiriguneetako gazteen artean euskararen eta euskal kulturaren transmisioa hobetzeko helburua du AEK-k aurkeztu duen #Damolat proiektuak. Naroa Jauregizuriak Bilbon, Getxon eta Portugaleten egindako ikerketaren emaitza da proiektua. Nerabeentzako edukietan hutsunea dagoela ondorioztatu du ikerketak, gazteek euskararen mundutik jasotzen dituzten erreferentziak "ikusezin eta arrotz" bihurtzen direla. Gazteei tresnak eskaintzeko helburuz, unitate didaktikoa plazaratuko du laster Ikastolen Elkarteak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz.



'EUSLE' PROGRAMA 28 ESKOLATAN

Ikasle iritsi berriei euskara irakasteko programa da *Eusle* eta iaz lau ikastetxetan martxan jarri ondoren, balorazio positiboa egin eta aurten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 28 ikastetxetara zabaldu dute. *Eusle* programaren barnean, iritsi berriak diren ikasleak bost eta hamar kide bitarteko taldeetan elkartzen dituzte aparteko gela batean modu horretan euskarazko komunikazio gaitasuna, zehazki A2 maila, eskura dezaten. Euskarazko A2 maila eskuratzea da helburua. Horretarako, astero hamar eta hamabi ordu bitartean egoten dira ikasleak gela horietan. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleek hartzen dute parte eta programak 24 eta 36 hilabete arteko iraupena du. Irakasleak trebatzeko programa ere prestatu du Eusko Jaurlaritzak.

HIZPIDE IZANGO DA

'PANTAILAK 0-6AN, ZERTARAKO?' JARDUNALDIAK, AZAROAREN 19 ETA 20AN

Azaroaren 19an eta 20an **Hik Hasik** antolatutako *Pantailak 0-6an, zertarako?* jardunaldiak izango dira. BEC-eko auditorioan izango da azaroaren 19ko saioa eta Zumaia-ko Zumaia ikastetxean azaroaren 20koa. Anna Ramis, Alvaro Beñaran eta Amaia Arroyo Sagasta izango dira bertan eta 0 eta 6 urte bitarteko haurrengan pantailek duten eraginaz arituko dira. Anna Ramis, pedagogoa eta pantailekiko mendekotasun goiztiarrean aditua da eta pantailek Haur Hezkuntzan duten zentzuaz arituko da. Alvaro Beñaran psikomotrizistak hurrek pantaileen bidez jasotzen dutena kudeatzeko baliabide psikiko egokiak ba ote dituzten aztertuko du eta Amaia Arroyo Sagasta HUHEZIKo irakasle eta ikertzaileak gidaritza digitala izango du hizpide. Izena emateko: www.hikhasi.eus.



Anna Ramis

Zer zentzu dute pantailek Haur Hezkuntzan?



Alvaro Beñaran

0-6 urteko haurrek badituzte baliabide psikiko egokiak pantaileen aurrean aritzeko eta hor jasotzen dutena kudeatzeko?



Amaia Arroyo

Pantailak 0-6 adin tartean: gidaritza digitalaren beharra azalarazten

Pantailak 0-6an. Zertarako?

Azaroaren 19an, BECeko auditoriumean
Azaroaren 20an, Zumaia-ko
Zumaia ikastetxeko aretoan



www.hikhasi.eus

'SORMENEAN HEZI, KULTURAN BIZI', II. JARDUNALDIA

Euskal kultur sorkuntzaren transmisioa. Sormenean hezi, kulturaren bizi. II. Jardunaldia antolatu du UEUK. 2018. urtean egin zuten lehenengo jardunaldia euskal kulturgintzaren transmisioan (ezagutzan eta praktikan) etena eman dela iritzita eta egoeraren erradiografia egin zuten. Hortik abiatuta, hezkuntza araututik kanpo euskal kulturgintzaren transmisioaren egungo egoera eza-gutu nahi dute aurten eta Euskal Herri osorako ikuspegia duen lan-talde bat osatu nahi dute, eskolaz kanpo euskal kulturgintzaren transmisioa nola berma daitekeen azter dezan. Urriaren eta azaroaren izango dira saioak Senperen, Laudion, Lesakan eta Azpeitian.

EUSKO IKASKUNTZAREN SINPOSIOA URRIAREN 22 ETA 23AN IZANGO DA

Euskal Hezkuntza Sistema: Adituekin solasean, herritaren azpimarra sinposioa antolatu du Eusko Ikaskuntzak urriaren 22an eta 23an Gasteizko Europa Biltzar Jauregian, nahi eta behar dugun euskal hezkuntza sistema denon artean irudikatzen, lehentasunezko gaien gaineko begirada jasotzeko helburuz. Eusko Jaurlaritzarekin batera antolatu dute bi eguneko jardunaldia eta herritarren azpimarrak jasoko dituzte bertan. On-line parte hartzeko aukera ere izango da.



lazko ikasturtea irakasleen zaintzaren inguruko hausnarketa eginez bukatu zuen **Hik Hasik**. Nekea zen ekainean gehien entzuten zen hitza, eta horren azpian zegoenaz hitz egin eta hausnartu nahi zen. 2020-2021. ikasturteko bizipenak, esperientziak, protokoloen artean egindako ahaleginak, bidean geratutako erronkak, ezinak, bildutako indarra, alderdi akademikoa eta emozionala uztartzeko nahia, ikasleak zaintzeko ardura pisutsua... dena atera zen irakasle eta zuzendarien ahotatik. Eta baita ikasitako lezio nagusi bat ere: besteak zaintzeko, nor bere burua zaindu behar duela. Hori esatetik egitera pasatzeko, ordea, heldulekuak eta praktikak behar dira. Horiek identifikatuz bukatu zen hausnarketa uztailean. Orain, urrian, martxan jartzeko unea da.

GAIA: IRAKASLEEN ZAINTZA

Norbera zaindu eta elkar zaindu, besteak zaintzeko

Egia da iazko zalaparta eta nobedadetik urrun geratu direla protokoloak, distantziak eta musukoak aurtengo ikasturte hasieran. Komunikabideetan hainbesteko oihartzunik ez izateak eragin zuzena izan du horretan, eta iazko esperientzia eta eskarmentua izateak ere bai, horrek beti balio baitu. Hain zuzen ere, iazko esperientziak utzitako lezioak azpimarratuta geratu ziren uztailaren 5ean Hik Hasi Udako Topaketetan egin zen hausnarketa kolektiboan. *Irakasleen zaintza* izena jarri zitzaion hausnarketari eta ikasturte honetan ondo gogoan edukitzeko lezioak, ondorioak eta gidalerroak atera ziren. Aurten iparra markatzeko balio dezaketenak pasa den ekainean bezain nekatuta ez bukatzeko.

Memoria ariketa txiki bat eginda, iazko irailean ikasleen alderdi emozionala zaintzeko beharra azpimarratzen zen; sei hilabete eskolara joan gabe egon ondoren, ikasleak geletara itzuli ziren eta nola egongo ote ziren zen kezka: etxean nola pasa izango zituzten hilabete haiek, emozionalki zer eragin izan ote zuen pandemiak eta itxialdiak, protokoloen aurrean nola erreakzionatuko zuten, harremanak zertan izango ziren, arrakala teknologikoa eta hizkuntza arrakala zenbatekoa ote zen... Eta egoera horretan, hezitzaileek

garbi ikusi zuten ikasleak zaindu beharra zegoela, emozionalki artatu beharra zegoela eta harremanak zaindu beharra zegoela. Inork gutxik egingo zion muzin zaintzaile misio horri.

Ikasturte osoan jasandako presio soziala ere itzela izan zen: aurrez aurrekoa mantentzeko nahia eta beharra, uneoro itxitako eta irekitako gelen datuak ematen aritzea, positiboen kopuruak aipatzea... Lantegietako eta enpresetako datuak ez ziren ezagunak, baina eskoletakoak bai.

Ikasturteak aurrera egin ahala, eta hilabeteak pasa ahala, ordea, nekea pilatuz joan zen eta orduan sortu zen galdera ikur handidun itauna: nola daude hezitzaileak? Elkar zaindu al dira? Zaindu al dituzte euren buruak? Zainduak izan al dira? Laguntzarik eskatu al dute? Konturatu al dira garrantzitsua dela ongi zaindua egotea haurrak zaindu ahal izateko? Eta... nork zaintzen du zaintzailea?

Talde kohesioa mantentzea xede

Uztailaren 5eko hausnarketa kolektiboan galdera horien guztien inguruko bizipenak azaleratu ziren. Hasteko, ordea, galderei erantzuten hasi aurretik, Axier Baglietto Arrema-

GAIA: IRAKASLEEN ZAINZA

Norbera zaindu eta elkar zaindu, besteak zaintzeko

nitz kooperatibako kideak dinamika bat egin zuen hanka-sartzeak onartzeko eta ospatzeko. Ezertan hasi aurretik —kasu honetan hausnarketa kolektiboan— bildutakoek euren buruei hanka sartzeko aukera eman zioten; buruan zuten ideia joan egin zitezkeela, hitz egiten hasi eta trabatu egin zitezkeela, ikasturte horretan zertan huts egin zuten konturatu zitezkeela... Huts egiteak onartuta, nork bere buruari jarritako presioa kendu egiten da eta hortik aurrera lasaiago aritzeko aukera irekitzen da. Eta, noski, presio hori kenduta, nork bere burua zaindu egiten du. Beraz, nork bere burua zaintzeko, hanka-sartzeak onartzetik eta ospatzetik hasteak asko laguntzen du.

Behin lasaitasun eta konfiantza horretan kokatuta, **Alicia Fernandez Oiongo Ramiro de Maeztu eskola publikoko zuzendariak** hartu zuen hitza eta euren eskolak testuinguru oso berezia duela kontatu zuen. “40 irakasle inguru gara eta horietatik 10-12 gara ingurukoak; gainerakoak urrutetik etortzen dira eta bi aukera izaten dituzte: bat, bidaia oso luzea egitea egunero, edo bi, pisu bat alokatu eta herrian geratzea. Berezitasun horrekin, guretzat oso garrantzitsua izaten da talde kohesioa lortzea eta 2020-2021 ikasturtean oso mugatuta egon gara, pandemiaren distantziak eta protokoloak tarteko zailtasunak izan baititugu kohesio hori lortzeko”. Oztupoak izan zituzten talde kohesioa lortzeko



aurrera eramaten zituzten dinamikak egiteko, klaustro osoa elkartzeko, zikloka banatuta egoteak ez zituen gerturatu, irakasleen artean nahasketarik ez egoteak elkar ezagutzea oztopatu zuen... “Pentsa, egun batean whatsapp taldean ‘Zorionak Maialen!’ jarri genuen eta denak ‘Zorionak’, ‘Zorionak’... erantzuten hasi ziren, eta ez zegoen Maialenik gure artean. Horrek adierazten du guztiok elkar ezagutzeko zer zailtasun izan ditugun”, zioen Fernandezek. “Zuzendaritza taldean gaudenok eskolako giroa oso garrantzitsua dela pentsatu izan dugu beti, baina gero, egia da ez diogula garrantzirik ematen ez delako produktiboa”, aitortzen zuen zuzendariak. “Batuetan karga bat bezala hartzen dugu bilera aurretik jolas bat egitea, adibidez. Edo are gehiago, ez denez produktiboa, ez diogu lehenetsunik ematen. Beti ditugu beste mila gauza egiteko eta nola galduko ditugu hamar minutu jolas bat egiten?”.

Pentsamendu horretatik haratago joan behar dela ikusi dute. “Gure helburua giro bat sortzea bada, hezitzaile horiek umeak zaintzea nahi baldin badugu, guk ere pertsona horiek zaindu egin behar ditugu. Umeekin dinamikak egin ditzaten nahi baldin badugu, guk ere hezitzaileekin dinamikak egin behar ditugu”. Horregatik, ikasturtea hasi baino lehen, irakasle berri guztiei banaka deitzen diete zer moduz dauden galdetzeko, ea autoz bidaiatzeko edo herrian pisu bat alokatzeko asmoa duten galdetzeko, eta laguntza eskaintzeko. Lehenbiziko egunean beti jolasak egiten dituzte, tutoretzatan irakasle berri bat zahar batekin jartzen dute beti eta koordinazio lan handia egiten dute.

Antzeko bizipenak kontatzen zituen **Iñigo Ramos Otxandioko herri eskolako zuzendariak**. 20 irakasle inguruko eskola da, eta Ramos zuzendariaren hitzetan, “leku guztietatik urrun geratzen da”. Jazarpenari aurre egiteko eta elkarbizitza positiboa sustatzeko lan handia egiten ari da ikastetxea eta gainera, klaustro osoaren baiezkoarekin, mugimendu autonomoari loturiko proiektu berrietan sartzeko asmotan zebiltzan, baina pandemiak bete-betean harrapatu zituen. Espektatiba eta itxaropen oso altuagaz hasi ziren, eta ez dira jarritako helburuetara heldu, baina bidea hasi dute. **Lur Ola-berri aholkulariak** aitortu zuen, bakoitza bere burbuilan egonda ezinezkoa izan zela, pentsatua zuten bezala, mugimendu autonomoan aritzea. “Eta ezinezkoa bada, lehenengo gauza ezintasun hori onartzea izan da. Heltzen garen lekura heltzen gara, ez gehiago”. Pentsamendu horrek eskolari estilo bat eman dio, lan egiteko modu bat, begirada jakin bat, eta horrek markatu zuen iazko ikasturte osoa. Olaberri aholkulariak azpimarratu zuen malgutasunez jokatzeko asko lagundu zela. “Distantzia, garbitasuna, musukoa... hori dena obsesioarekin bizitzeak zama handia dakar eta oreka batean

GAIA: IRAKASLEEN ZAINZA



"Nork bere burua zaintzeko, hanka-sartzeak onartzetik eta ospatzetik hasteak asko laguntzen du"

Axier Baglietto

neurria hartzea eta jendearen beldurrak eta egoerak errespetatzeak asko laguntzen du". Eta horrela, gauza negatiboak ez ezik, alderdi positiboak ere ikusi dizkiote pandemiaren ikasturteari: musikako irakaslea eskola ordu guztietan kanpora ateratzea gela oso txikia zuelako eta han ezin zuelako dantzarik egin; ordura arte ez bezala eskolaren ondoan dagoen pagadira joaten hastea eta hori sistematizatzea; herrira joatea; sortutako zalantza askoren aurrean garrantzitsua zer den ikustea, eta ondoren, askatasuna edukitzea egin edo ez egin erabakitzeke; irakasleen zaintzari begira eztabaida foroak eta praktika onak partekatzea eta horrela, lehen gela batean geratzen ziren praktika onak orain partekatu egiten dituzte kontzienteki: joan, ikusi eta zoriondu. Gauza horiek denak estilo kontua direla diote Ramosek eta Olabarrik. "Ez dago misteriorik, daukagunetik ateratzea baizik".

Elkar zintzoki entzutearen garrantzia

Dagoenetik ateratzen, eragiten eta gehiago ateratzen ohituak daude **Pello Agirrezabal eta Txaro Etxeberria Tolosako Herrikide ikastetxeko irakaslea eta orien-**

tatzailea, hurrenez hurren. Pandemia beteko ikasturtean proiektu berri batean murgildu ziren. *Pertsonak herrikide* izena eman diote eta TEAL metodologian oinarritzen da. "Autogestiorantz bideratutako erakunde mota bat proposatzen du eta horrelakoa izatea nahi dugu gure eskola", zioen Etxeberriak. "Horrela, aurtun entzuketa lan garrantzitsua egin dugu. Izan ere, arnasa hartzea bezain garrantzitsua dela esaten dugu, baina ez da erraza. Gaur egun oso modan dago mugak non jarri behar ditugun esatea, geure burua zaintzeko zeri esan behar diogun ezetz markatzea. Baina gero nork erakusten digu ezetza kudeatzen? Ez gaude trebatuta. Bizitza osoko negarrezko haranetik dena norberaren esku dagoen garai batera pasa gara; 'ni, ni eta ni' mundu kapitalista batera pasa gara. Horregatik, guk ni hori asko landu dugu eta nitik gura pasa nahi dugu, kolektibotasunera, egotik ekora. Zeren pentsa nola hitz egiten dugun batzuetan: 'sutan nago zure gelarekin, 4. B-arekin', edo 'kokoteraino nago nire gelarekin, beti zailenak jartzen dizkirate'. Zergatik hitz egiten dugu lehenengo pertsonan? Gela hori ez da irakasle horrena, eskola osoarena baizik. Aldaketa hori egitea elkar zaintzea da".

GAIA: IRAKASLEEN ZAINITZA

Norbera zaindu eta elkar zaindu, besteak zaintzeko

Herrikiden borondatezkoa izan den prozesu horretan 60tik 39 langilek hartu zuten parte — irakasleak, administrazioak, garbitzaileak, jangelakoak... — eta entzuten eta esker oneko itzulketa egiten ikasi dute. “Garrantzitsua da pertsona batek benetan esan nahi duena askatasunez eta konfiantzaz esan dezakeela sentitzea; besteek juzgatu, epaitu eta kritikatu gabe jaso egingo dutela jakitea; ‘botaka’ egin dezakeela — gero ikusiko da konposta daitekeen edo ez —”. Lanketa horren ondoren, esker oneko itzulketa egin zuten. “Esan beharrean zerk ez duen funtzionatzen soilik, ondo dauden gauzak ere esan ditugu eta zer daukagun hobetzeko ere bai”.

Lanketa horren falta bizitu dutela adierazi zuten hausnarketa kolektiboan parte hartu zuten Donostiako Jakintza eta Erandioko Altzaga eskola publikoetako bi hezitzailek. “Gurean ia tabua izan zen irakasle eta guraso batzuekin gaiaz hitz egitea, bakoitzak nondik bizitu zuen partekatzea. Batzuei neurriak gutxi iruditu zitzaizkien eta beste batzuei gehiegi. Eta hor elkarrizketa falta izugarria egon da. Komunitate bezala kale egin dugula uste dut. Nik faltan bota dut konfiantzaz ondokoarekin eta gurasoekin hitz egiteko aukera izatea”. Kritikotasun eta baliabide falta sumatu zituen Altzagako hezitzaileak.

Inprobisazioa eta ziurgabetasuna nagusi

Iruñeko San Fermin ikastolan ere hausnarketa prozesu bat egiteko baliatu zuten iazko ikasturtea, baina onartuta, halere, ikasleen zaintzari askoz ere pisu eta garrantzi handiagoa eman ziela irakasleentzako baino. **Lina Andueza Bigarren Hezkuntzako zuzendariak** hala aitortzen zuen. “Ikasleen harrerari asko erreparatu genion eta ikasturte hasieran talde dinamikak landu genituen, horretarako inoiz baino denbora gehiago hartuz. Baina ez genuen irakasleen harrera planik egin. Itxialdi batetik gendozen eta irakasle bakoitza bere beldur eta kezken motxilarekin hasi zen lanean. Pertsonen arteko kontaktua arriskutsua bihurtu den honetan, 1.600 ikasle artatzeraz pasatu behar izan ginen. Nola ez kezkatu? Edo sentitu beldurra, edo arriskua? Eta hori ez genuen aurreikusi, ez genuen ezer berezirik egin. Beraz, aurrez aurrekoaren aitzakian, normaltasun faltsu bat izan dugu, ziurgabetasuna izan da protagonista, eta indar gutxi geratu zaigu gure zaintzarako. Inoiz baino gehiago behar genuen eta inoiz baino zailago izan zen”.

Izan ere, egoerak berak zurrumbilo batean murgildu zituen denak Anduezen ustez. “Hezitzaileok eta eskola komunitateko beste langile guztiok, gorabehera dezente izan

“Garrantzitsua da pertsona batek benetan esan nahi duena askatasunez eta konfiantzaz esan dezakeela sentitzea; besteek juzgatu, epaitu eta kritikatu gabe”

Txaro Etxeberria



GAIA: IRAKASLEEN ZAINZA



genituen. Ez da erraza izan, protokoloaren morroi bilakatu gaituzte edo gara. Emozioen dantza honetan hezkuntza komunitateak ez du bere tokia erabakitzeko aukerarik izan. Ziurgabetasunak zaildu egin du erabaki kontziente eta hausnartuak hartzea, eta guregatik hartu dituzte erabakiak beste batzuk, horien artean, komunikabideek. Gure irizpide propioa eraikitzeke izan ditugun zailtasunak izan dira, nire ustez, gure lana zama izugarria bilakatzearen arrazoietako bat. Horrela etengabeko inprobisazioan egon ginen iaz”.

Inprobisazioa eta ziurgabetasuna asko errepikatu diren hitzak dira, eta Anduezak dio hezkuntzan ziurgabetasuna ez dugula ongi eramaten. “Gure lanbidean, beste askotan ez bezala, faseak argiak dira eta urtero errepikatzen dira. Nik, Biologiako irakasle bezala, badakit urtero zer gai lantzen ariko naizen otsaila amaieran 2. Batxilergoan. Iaz, aldiz, ez nekien otsailean ikastolan egongo ote ginen, orduan izan baikenuen Batxilergoan positibo tasa altuena. Eta hemen bada zer hausnartu. Mundu konstante eta ziur batetarako hezi ninduten ni eta beste belaunaldi asko, eta horixe bera

errepikatzen dugu guk gure ikasleekin. Baina pandemiak berez erreala den zerbait agerian utzi digu: ziurgabetasunez beteriko etorkizuna dugu aurrean eta horretarako prestatu behar ditugu gure ikasleak eta hortaz, gure burua”.

Hausnarketa horretatik tiraka, bi esku dituztela ikasi dute San Fermin ikastolan eta horrek aukera paregabea eskaini die aurrera egiteko. “Esku batekin, pandemia kudeatu dugu. Esan bezala, zirrikitu txikia ikusten genuen hemen ezer erabakitzeko. Baina hori ez da nahikoa emozionalki. Halere, badugu bigarren esku bat. Nik iaz hartu nuen zuzendaritza eta argi daukat pandemia hau kudeatzeaz landara beste zerbaitetarako onartu nuela erronka. Pandemiak gauza asko atera ditu, baina ez ditu sortu. Duela hiru urte galdetegi bat egin genuen irakasleen artean eta *nekea* hitza ateratzen zen. Eta aurten ere bai. Beraz, azaleratu bai, baina sortu ez. Normalean gero eta lehenago nekatzen gara, sistema abendurako nekatuta dago. Beraz, horren inguruan hausnarketa bat hasi genuen eta bigarren esku hori amets egiteko erabili dugu. Iaz hasi genuen hausnarketa bati ja-

"Normaltasun faltsu bat izan dugu, ziurgabetasuna izan da protagonista, eta indar gutxi geratu zaigu gure zaintzarako. Inoiz baino gehiago behar genuen eta inoiz baino zailago izan da"

Lina Andueza

GAIA: IRAKASLEEN ZAINZTA

Norbera zaindu eta elkar zaindu, besteak zaintzeko

rraipena eman diogu eta gure ikastola irudikatzeko ariketa egin dugu. Nolako ikaskuntza eta irakaskuntza garatu nahi dugu benetan? Nolako ikasleak garatu nahi ditugu? Nolako hezitzaileak garatu nahi ditugu?”.

Eta euren ametsetan ez da *birus* hitza atera, ez *nekea*, ez *pandemia*... ez horrelakorik... baizik eta euren artean errespetuzko eta konfiantzazko eremuak eraikitzeke beharra; ikasgelak ikasteko eta hanka sartzeko toki seguruak izateko nahia; eta denboraren markoa apurtzeko beharra, oso marko zurruna baita eta horrek asko estresatzen baititu. Edukiak, ikasleak eta irakasleak antolatzeke eta taldekatzeke modu berriekin amesten dute eta “gelditu, lepoa luzatu jirafen antzera eta norantz joan nahi dugun begiratzan jarri behar gara. Eta bide hori egin ahal izateko zama arindu beharko dugula onartu. Gauza batzuk utzi behar ditugu, etengabe egiteko berriak pilatu beharrean. Eta hemen ere, badugu naturaz zer ikasi: basoan udazkenean zuhaitzek hostoak galtzen dituztenean bezala, kanpotik biluztu beharko gara barrutik janzteko”.

Ikasitakotik, elkar zaintzeko ideiak

Iazko ikasturtean biziitutakoa bizituta, 2021-2022. ikastur-

terako elkar zaintzeko ideia argiak emanez eman zitzaion amaiera hausnarketa kolektiboari. Oiongo eskola publiko zuzendariak elkar zaintzea lehentasun gisa planteatu behar dela aldarrikatu zuen, “premiazkoak garrantzitsua denari lekuri ken ez diezaion”. Herrikideko Agirrezabalek hitz egiteko eta entzuteko eremuak sortzea azpimarratu zuen. “Zeren askotan egun osoa elkarren ondoan pasatzen dugu eta oso azaletik ezagutzen dugu elkar. Eta inportantea da elkar zaindu nahi baldin badugu, ezagutza hori sakonago izatea”. Etxeberriak gehitu zuen pertsona erdigunean jartzea esatetik egitera pasa behar dugula. “Horretarako, nik uste dut pertsonengan konfiantza izan behar dela, zeren hortik sortzen dira gauzarik hoberen-hoberenak. Konfiantza, errespetua, komunikazio ez bortitza, eta tratu ona. Eta nik uste dut posible dela”. Anduezen iritziz, “funtsezkoa da hori guztia sistematizatzea, egituran barneratzea eta errutina bihurtzea. Zeren, bestela, ez da egiazkoa izango”. “Bizkaieraz behaketa hitza erabiltzen dugu — gehitu zuen Ramosek —, eta begiratzeaz gain, zaintzea ere esan nahi du. Eta hori da gakoa. Begiratzan duzun hori zein begiradarekin zaintzen duzun”. Olaberriaren ustez begirada aldatzea, zabaltzea eta partekatzea da gakoa. Hori guztia exijentziarik gabe, hanka-sartzeak ospatuz eta xume-xume josiz hastea proposatu zuen Bagliettok.

"Elkar zaintzea lehentasun gisa planteatu behar da, premiazkoak garrantzitsua denari lekuri ken ez diezaion"

Alicia Fernandez



Nork bere burua zaintzeko eta elkar zaintzeko gakoak

Zer da ikasleak zaintzea? Zer da irakasleak zaintzea? Zergatik da garrantzitsua elkar zaintzea? Horrek zer eragin dauka gure egunerokoa? Nola zaindu dezakegu elkar?

Galdera horien erantzunak eman zituen Axier Baglietto Arremanitz kooperatibako kideak hausnarketa kolektiboan:

1- Baimena: hanka sartzeko baimena aitortu behar diogu geure buruari. Are gehiago, hanka sartzean, edo urteko helburuak bete ez direnean... ospatu egin beharko litzateke. "Ez gara iritsi" ospatu, agian muga oso goian jarria zegoelako. "Hau ere egingo dugu, eta hau, eta hau" esan ordez, "aurten honekin nahikoa" esan daiteke.

2- Exijentzia jaitsi: dauzkagun baldintzetatik gora exijitzen hasten garenean, ez gara zaintzen ari, geure burua estutzen ari gara. Norbere zaintzaren lehenengo arduraduna norbera da, norberak ikasi behar du mugak jartzen, eta mugak garaiz jartzeak harremanak osasuntsuagoak izaten lagunduko du. Exijentziarena sistema kapitalistarentzat oso-oso baliagarria den pentsamendua da: gehiago egin behar duzu, inoiz ez da nahikoa... Hortik jaisten ikaragarritzko lana daukagu.

3- Rola: bakoitzak bere rolean jarri behar du, eta ez gehiago, geure roletan geure burua berrestu eta 'hau da nire muga' esan.

4- Begirada: zaintzeko modu bat baino gehiago egon daitezke, eta akaso gure parekoak gu zaintzeko daukan modua ez da guk nahiko genukeena, baina hori da bere modua. Etxe askotan amek ez diete galdetzen seme-alaba helduei nola dauden, baina hozkailua beti beteta edukitzen dute haientzat. Seme-alabek hori ikusten ez badute, ez dute ongi tratatzen zaintzen dituen ama hori. Beraz, garrantzitsua da begirada aldatzea. Jakitun gara hezitzaileen begiradak asko baldintzatzen duela; beraz begirada eta kontzientzia dagoen zaintza horretan jarrita, emankorrago izango da zaintza bera eta harremana.

5- Zaintza oso gauza sinplea da: zaintza da saio baten aurretik jolas bat egitea, bilera baten aurretik hiru minutu hartzea zer moduz gauden komentatzeko.

6- Zaintza bada produktiboa: zaintzari lotuta daukagun pentsamenduetako bat da zaintza ez dela produktiboa eta hori kapitalismoak sartu digun gezur handi bat da: ez da egia bizitza eta produkzioa posible dela zaintzarik gabe. Lehia eta produkzioa egon ahal izateko zaintzak egon behar izan du hasiera-hasieratik. Baina sistemak ukatu egiten du, ukatu ezin duenean gutxietsi, garrantzia kendu... Zaintzak epe motzera ez du produzitzeko dirurik ematen, baina epe luzera oso produktiboa da, zeren erdigunean jartzen du hau eusten duena, alegia, gizataldea, pertsona.

7- Beharrak vs nahiak eta kontsumoa: beharrek gehiago konektatzen gaituzte zaintzara nahiek eta kontsumoak baino. Hortaz, beharrei begiratzeak gehiago laguntzen du. Beharren lorategia, beharren piramideak, beharren gida eta beste hainbat modu daude beharrak identifikatzeko eta antolatzeko. Horien bitartez jakin daiteke zein behar ditugun, horietatik zein dauden ase eta zein ez, eta behar horiek nola lotzen diren botere-zapalkuntzaren harremanekin eta bakoitzaren bizitzaren zirkunstantzietan.

Beharrek bi gauza interesgarriekin konektatzen gaituzte: a) zauggarritasuna, ezin dugu dena egin; ez gara nork bere burua bakarrik asetzeko gai. b) nork bere beharrak asetzeko elkarren beharra daukagu.

7- Zaintzaren gakoetako bat gatazka da: zaintza ona irribarre batek islatzen duela sinestarazi digute, *Profi-*dent irribarre batek. Eta ez da hala. Interdependentziatik begirata eta zaintzeko denok elkarren beharra dugula jakinda, gauza jakina da horrek gatazka dakarrela. Orduan, nola egiten diogu tokia gatazkari, nola aitortzen dugu gatazka, nola aitortzen dugu gatazka bat positiboki ebatzi ahal izateko gatazka batean gauden guztiak garrantzitsuak garela, eta beraz gatazkan dauden pertsonak zaintzen saiatuko garela, eta zer mekanismo jarriko ditugu gatazka konpontzeko. Taldea zaintzeaz ari garenean, horri egin behar zaio lekua.

8- Beti laguntzen du arnasari lekua egiteak; mugimenduari eta gorputzari lekua egiteak; eta arreta jartzeak behar dugun horretan eta hori eskatzeak. Esate baterako, egun jakin batean bilerak arina izatea behar dugula etxeko arazoekin kargatuta gaudelako.



“Oraina ulergaitza bihurtzen denean, etorkizunak existitzeari uzten dio; eta uste dut hori ari dela gertatzen gaur egun geletan”

ELKARRIZKETA:

MARINA

GARCES

FILOSOFIA ETA UOC-EKO IRAKASLEA

Filosofoa eta unibertsitateko irakaslea da Marina Garces kataluniarra. Zaragozako unibertsitateko irakasle izan zen eta gaur egun UOC Universitat Oberta de Catalunya dabil eskolak ematen. Haatik, bere bizitzak badu beste alderdi bat ere: gela barruan zein kanpoan egiten du filosofia, espazio formalean zein informalean.artzelona hainbat ekintzetan parte hartutakoa da eta 2002. urtetik 'Espai en Blanc' proiektua bultzatzen eta koordinatzen du. Adin eta diziplina askotariko jendea elkarrekin pentsatzera animatzen

duen proiektua da, eta hezkuntzan ere gauza bera defendatzen du: elkarrekin eta elkarrengandik ikastea guztion bizitzako esperientziak partekatuz. Garcesentzat hezkuntza gonbidapen bat da, elkarrekin ikasteko arriskua hartzeko gonbita, egungo garaietako mendekotasunei aurre eginez. Apendizen eskola aurkezten du hori gauzatzeko leku modura, denok apendizak bihurtzen garen tokia. Eta elkartze eta partekatze horretan, 'osagai onekin' oraina ulertzeko eta etorkizuna irudikatzeke gai izango garelako uste du.



Zure azken liburuan, *Escuela de aprendices* (Aprendizen eskola), hezkuntza elkarbizitza tailer modura definitzen duzu, askotariko bizimoldeak entseatzeko ditugun tailer gisa. Eta tailer horren oinarrietako bat ikuspuntuaren lanketa dela diozu. Zer esan nahi duzu horrekin?

Ikuspegi bakar bat ez dagoela esan nahi du horrek. Horregatik ez dago eredu bakar bat, horregatik ez dago irakasle bakar bat, horregatik ez dago hezitzaile bakar bat, horregatik ez dago legegile bakar bat.

Horrez gain, hezkuntza ez da nola hezi galderari erantzutea, zeren kasu horretan programatzeaz, ereduak egiteaz, legeak egiteaz eta abar arduraz diren galdetzen eta erantzuten dute. Aitzitik, hezkuntza aprendizaren bizitzako ibilbide, jokabide eta desio anitzak biltzen dituen ikuspuntua da, eta horiek denak modu askotarikoan, kolektiboan edota, askotan, konbinatu gabe osatu behar izaten dira. Eredu baten xedea bateratzea da, eta aprendizaren eskolak, berriz, etengabe osatzen aritza gonbidatzen du. Hau da, ikuspuntuak sortzen eta konbinatzen —eta behar denean konbinazioak hausten— aritza.

Orduan, hezkuntzako galdera gako niretzat ez da nola hezi, baizik eta nola heziak izatea nahi dugun.

Nola definitzen dituzu aprendizak? Zer dira zuretzat?

Aprendiza niretzat ez da hezkuntza ekintzaren objektua. Ez litzateke pentsatu behar zer egin haiek ikas dezaten, nola egin haiek trebatu daitezten, nola egin haiek ezagutza eta konpetentzia jakin batzuk har ditzaten. Gu denok gara aprendizak, denon artean osatzen dugulako subjektu kolektiboak.

Aprendizak denok gara, oraindik izango garena ez garen guztiok, oraindik izango garena izateko bide horretan gaudenok, oraindik azken emaitzara iritsi ez garen guztiok, oraindik zer jakingo dugun edo jakiten joango garen ez dakigunok. Ez jakite hori ez da ezjakintasuna, baizik eta ikasketa esperientzia baten aurreko ausardia. Eta hortik, oraindik horretatik, iragate horretatik, jakin-min horretatik sortzen ditugu besteekiko erlazioak eta beste leku, pertsona, ezagutza, praktika, makina eta presentziakiko konpromisoak; azken batean, gizartearekiko konpromisoak, gizartea osatzen duten elementu guztiekiko konpromisoak.

Hortaz, aprendizak edo aprendizak ez dira sistema bateko norbanakoak, ez dira makina bateko pieza bat, ez dira muntaketa-kate bateko produktu bat; baizik eta leku, pertsona, behar eta

komunitateen sare bateko elementuak gara. Eta sare hori harreman bikoitz batetik sortzen, hornitzen eta ikusten da: gonbidapena eta osaketa. Elkarrengandik eta elkarrekin ikasteko aukera ematen duten harreman-sareak sortza gonbidatzea eta horiek osatzeko bitartekoak sortzea da.

Nola bihurtzen dira aprendizak subjektu kolektibo?

Elkarren artean topo eginez, elkarrekin osatuz eta topaketa horretan elkarrekin eta elkarrengandik ikasten dutela onartuz eta jakinez. Elkarrekin eta elkarrengandik; ikasketa baten inguruan hainbat modutara egoteko aukera sortzen dute bi deklinazio horiek.

Horrek ez du esan nahi aprendizak ezjakitasun maila berean daudenak elkarrekin ikasten aritza denik. Hori da gaur egungo korrante pedagogiko batzuek sortu duten fikzioa; ikasketa autoikasketa soilik dela esaten digute. Kasu honetan, ikasleak elkarrekin Interneten informazioa bilatzen aritzen dira eta norbaitek horretan laguntzen die, bilaketa horren laguntzaile soil bihurtuz eta bere jakituria guztia lagaz, ezkatuz edo ahaztuz. Berdintasun pedagogiko horren fikzioak hustu egiten du, nire ustez.

Beraz, ez dut bultzatzen elkarrekin

informatzen diren ezjakinen autohezkuntzaren ideia, baizik eta bitarteko baten osaketa, non ezagutzak, praktikak, jakinduria eta ezjakintasunak ikasketaren praktika horretan batuko gaituzten elementuak izango diren. Horrek desberdinak direnak berdinu egiten ditu. Hau da, jakinduriaren, ezagutzen eta adinen desberdintasunetik eta desberdintasunean denok apendizak bihurtzen gara eta bizitzako ibilbide horiek osatzen dute apendizaren arteko topaketa eta aliantza. Eta orduan bai galdetu dezakegula nork ikasten duen norengandik, nork ikasten duen norekin, eta horrela ikasteko gonbidapena egin.

Hortik abiatzen bagara, hau da, hezkuntza ikuspuntu pluralen lanketa gisa ulertzen baldin badugu, ikasketarekiko erlazioaren osaketa gisa ulertzen baldin badugu eta elkarrekin eta elkarrengandik ikasten dutenen arteko osaketa gisa ulertzen baldin badugu, hezkuntzaren ekintzara oso modu desberdinean gerturatzen gara, nire ustez.

Zein ikuspegiarekin gerturatzen zara, orduan, hezkuntzara?

Hiru dimentsio ikusten dizkiot. Bata, hezkuntza arteen eta egiteko moduen multzo gisa ulertzen dut. Bigarrena, ikaskuntza gonbidapen bat bezala ulertzen dut. Eta hirugarrenik, hezkuntza honen azken zentzua burujabetzea edo emantzipazioa dela ulertzen dut.

Nola garatzen da ikaskuntza, arteen edo egiteko moduen multzo gisa ulertzen baldin bada hezkuntza?

Michel De Certeau-ren espresioa da arteen edo egiteko moduen multzoa dela hezkuntza, eta ez teoria edo lanbide bat bakarrik. Arteak edo egiteko moduak oso era interesgarrian definitzen ditu Desertok: “Denen arteko praktikak eta eragiketak dira —beraz, beti elementu partekatua da—; eremu bat mugatzen dutenak —ez dira arbitrarioak, ez da edozein modutara egiten den edozer gauza—, kasu honetan Hezkuntza eremua; eta pasibotasunera eta diziplinara kondenatuta egongo lirartekeen pertsonen eguneroko sormenetik

sortzen dira —beraz, ez da gutxi batzuen ezagutzaren monopoliotik ezartzen den teoria, baizik eta praktika horiei lotutako jakintzen egunerokotasun bat dago—. Hau da, De Certeau-rentzat arteak eta egiteko moduak normalean hezitzailearen objektu diren ikasle horiek dituzten ezagutzen eta praktiken aberastasuna da. Ikuspuntuari buelta ematen dio: ezagutzak hor daude, eguneroko praktika horietan, normalean pasibotasunera eta diziplinara kondenatuta dauden pertsona horietan, eta ezagutza horiek ikusteko eta hartzeko prest egotea da hezkuntzaren zeregina. Partekatzen ditugun ikasketen bitartez existentziari forma eta zentzua ematea da, azken finean.

Hezkuntza gonbidapen bat bezala ulertzen duzu.

Bai, hala da. Tailerrean gertatzen den hori gonbidapen gisa ulertzen dut. Ikaskuntza transmisio gisa ulertu dezakegu, transmisio elementuak dituelako; heziketa gisa ulertu dezakegu, heziketa elementuak dituelako; formakuntza gisa ere bai, formazio elementuak dituelako; baina dimentsio horiek guztiak garatzeko ikasteko gonbidapen bat behar da. Hau da, ikaskuntzako momentu gisa baliagarriak dira formazioa, eskolatzea, transmisioa, errepikapena, ariketak... baina benetan hezigarriak dira baldin eta gonbidapen bat baldin badago.

Gonbidapena zertara?

Gilles Deleuze frantziar filosofoaren hitzak hartuta, “egin nirekin” da gonbidapena. Igeriketako irakaslearen adibidea jartzen du Deleuzek: igeriketako irakasle ona ez da urertzean “egin horrela” edo “egin nik bezala” dioena, baizik eta ikasten ari denarekin batera uretan sartu eta “egin nirekin”, “etor zaitez nirekin”, “egin igerian nirekin” dioena. Irakasle horrekin ikasten da igerian, ez urertzean dagoenarekin.

Irudi horrek askotarako balio du eta nik hezkuntzari egiten diodan kritikarako baliagarria den irudia da: hezkuntza ez da errepikatu eta aplikatu behar den eredu bakar bat. Igeriketa irakasle batek ezin du eredu

“Ezagutzak hor daude, eguneroko praktika horietan, normalean pasibotasunera eta diziplinara kondenatuta dauden pertsona horietan, eta ezagutza horiek ikusteko eta hartzeko prest egotea da hezkuntzaren zeregina”

“Ikaskuntzako momentu gisa baliagarriak dira formazioa, eskolatzea, transmisioa, errepikapena, ariketak... baina benetan hezigarriak dira baldin eta gonbidapen bat baldin badago”

“‘Etor zaitez nirekin’, ‘egin igerian nirekin’ dioden irakaslearekin ikasten da igerian, ez urertzean dagoenarekin”



bat izan, ikasten ari denarekin batera igerian egiten duen gorputz bat izan behar du.

Izateko gonbidapen bat da, zeren norbaitek elkarrekin zerbait ikastera gonbidatzen bagaitu, izatera gonbidatzen gaitu.

Aprendizen eskolak ikuspuntua lantzen du, bere tailerrean ezagutzak elkartzen dira, ikaskuntza gonbidapen gisa ulertzen da, eta azkenik, azken zentzua burujabetzea lortzea dela diozu. Burujabetzea modu askotara uler daiteke gaur egun. Zuk zer zentzutuan ulertzen duzu? Zer burujabetzeaz ari zara?

Nik uste dut burujabetze hori ez dela formazioaren azken produktua eta ezta ere bere garaiko ezagutzak lortuta, pilatuta eta hartuta bere askatasunaz gozatu dezakeen subjektuaren eraketa-bideko azken produktua — hori gaur egungo subjektu burujabe modernoa litzateke —. Emantzipazioa besteen gonbidapena jaso eta hartu dezakegunean eratzen den ikuspuntua da.

Norbere kabuz pentsatzea bai — zentzu horretan burujabetzearen gutxienerako definizioa hori baita —, baina besteekin. Nork bere kasara pentsatzea, baina besteekin. Eta zertaz pentsatu? Gure garaiko arazo

komunez. Mundu komun horretan sartzeko aukera horrek definitzen du aprendizaren eskolako burujabetzea beste burujabetzeen aurrean —ezagutzaren metaketatik eta eraketatik sortutako subjektuaren askatasun garbia eta posesiboa—.

Gure garaiko arazo komunak aipatu dituzu. Nola sartzten duzu hezkuntzaren definizio eta ikuspuntu hori gaur egungo gizartean? Zer ekarpen egin dezake aprendizaren eskolak?

Uste dut une honetan —eta behin eta berriz esaten da hau— edozein eginkizunek mehatxu edo itzal bati egin behar diola aurre: etorkizunik ezari. Lehen zera esaten zen: aurretik ez dela gaur egungoa baino garai ziurgabeagorik gogoratzen —belaunaldi batzuek behintzat—. Ziurgabe adjektiboak, ordea, ez du egoera objektibo bat definitzen, baizik eta nola bizi dugun egoera bat espero dugunari, egin dezakegunari, ulertu dezakegunari eta gertatzen denari dagokionez. Hor agertzen da ziurgabetasuna: ez dut ulertzen etorkizuna egiteko, esku hartzeko eta irudikatze adina.

Ikaskuntza etorkizuneko egitekoa da. Ez ditu lan irteerak, etorkizuneko irteerak edo iruditeriak bermatu behar, ez da aseguru-etxe bat, ez

digu ez bermatzen ez hitzematen, baina oraina irakurtzeko —ez dakit dena ulertzeko aukera, baina irakurtzeko behintzat bai— eta etorkizuna irudikatze aukera eta bidea eman behar digu. Etorkizuna ez-etorkizuna da, egiaz etorkizuna ez da existitzen, badakigu, etorkizuna gure orainaren itzala da, hor luzatzen dira gure pausoen itzalak. Baina oraina ulergaitza bihurtzen denean, etorkizunak existitzeari uzten dio. Eta uste dut hori ari dela gertatzen gaur egun geletan.

Albistegietan atera den berria da 13 urterekin nerabeek eskolarekin edo institutuarekin duten harremana ulertzeari uzten diotela. Ez nerabeak direlako eta burua beste gauzez beteta dutelako, baizik eta ez dutelako ulertzen zer egiten duten han. Ikasle askoren sententzia da ikasten dutenak ez diela balio ezertarako. Ez soilik ikasketekin ezin dutelako lan profesionalik aurkitu, baizik eta orokorrean eskoletan eta unibertsitatean ikasten dutenak “ez diela ezer esaten” sentitzen dute. “Ez die ezer esaten” ez dielako balio bizi garen munduari hitz egin arazteko eta harekin solasteko. Bizi eta biziraun behar dugun errealitatea are irakurgaitzagoa egiten du. Hezkuntza sistemak eta akademiak orokorrean kolaboratu egiten dute, beraz, analfabetismo ilustratu batekin, eta analfabetismo horren kontra ez da egiten formazio gehiagorekin, baizik eta ezagutza sendoago batekin.

Nola lortu daiteke ikasketek zentzua izatea eta ezagutza sendoagoa izatea?

Nik uste dut hori denoi gertatzen zai-gula. Nik ere askotan ez dut ulertzen zer egiten dudan orokorrean irakasle lanetan ari naizenean edo guraso bezala, eta ezta auzoan, hainbat talde-tan edo proiektutan aurrera eramaten dugun elkarbizitzako zeregin hezitzailean.

Niretzat burujabetzearen lana horrekin erlazionatzea da. Hau da, ez ahalmen aldetik subjektu indartsuak eta libreak sortzea eta ezagutzak dituztenak, baizik eta gure garaiarekin dugun harremana mehatxatzen duen ulertezinatatasunarekin erlazionatzeko gai izatea.

Horregatik, irakurtzen ikastea da aprendizen eskolak egiten duen proposamen berria. Badakigu alfabetatzeak emakumeen, beheko klasearen eta jauntxoaren monopolioan zegoen ezagutzatik baztertuak izan zirenen emantzipazioa ekarri zuela. Gaur egun ez dagokigu hizkiak irakurtzen ikastea —hori erakusten digute—, baizik eta gure garaia ulertzeko ariketa libre bat egitea behin eta berriz. Gertatzen zaiguna ulertzen hasten bagara, nahi duguna irudikatze gaitu izan gaitzake, zer ez dugun errepikatzerik nahi —pandemiaren ondorengo egoeran, adibidez— eta orduan bai egongo dela etorkizuna. Uste dut hainbat modu izan ditzakegula hona ekarri gaituen mundu hau ez dugula errepikatzerik nahi esateko. Baina horretarako orainaren gakoak irakurri behar dira, beste etorkizun batzuk irudikatu, eta eztabaidatu eta borrokatu. Eta hori irakurtzen ikasiz eta “osagai onak” edukiz lortuko dugu.

Zein dira “osagai onak” diozun horiek? Zein lirateke etorkizuneko jakintzak?

Konplexutasuna, abiadura eta ziurgabetasuna menderatu nahi baldin baditugu, adituaren eta teknologiaren eskuetan jarri beharko dugu, haiek egiten dituzten ereduetan, prospektiba analisietan, aholkularitzetan, formazioetan, ebaluazioetan, errubriketan, power point-etan, eta azkenik, sineskortasunez jarraitu ahal izango ditugun aginduetan. Mendekotasun kognitibo honen aurrean, eraginkorrena “osagai onak” prestatzea eta partekatzea da. Nire ustez horrek izan beharko luke hezkuntza on baterako agindu bakarra; eta are gehiago, orokorrean bizitza osorako agindu bakarra izan beharko lukeela esatera ausartuko nintzateke.

“Osagai onak” aginduak ez du sineskortasunik onartzen: osagaiak probatu egin behar dira. Tranpei eta engainuei aurka egiten diete. Plater baten lehengaia txarra baldin bada, berdin du sukaldariak konplexutasun gastronomikoz mozarrotzea. Norbaiten gaitasun linguistikoa eskasa baldin bada, ez du axola zer titulu edo arrakasta lortzen duen edo zein aditu-mintzaira erabiltzen duen, bere

ezintasuna disimulatu baino ez du egingo. Bi soinuren edo bi kolorearen arteko erlazioa ez baldin badugu antzematen sentikortasun aske batekin, mugikorrean eduki ditzakegun musika zerrendak edo ikus-entzunezkoak zarata baino ez dira izango. Ordenagailu bat matxuratzen denean hura itzali eta berriro pizten besterik ez baldin badakigu, inoiz ez dugu arkatzik hartuko edo inoiz ez zaigu bururatuko ohar bat bidaltzea. Planetako edozein lekutan egonda haizeak nondik jotzen duen ez baldin badakigu, berdin du zer-nolako planeta-kontzientzia daukagun, ez baikara ohartuko sua edo ekaitza datorrenik. Inoiz ez baldin badiogu elkarri begietara begiratu, berdin du kudeaketa emozionaleko eta taldeen zuzendari-tzako ikastaroak egin izana; ezingo dugu inoiz inorekin erlazionatu.

Gauza bera gertatzen da ikaskuntzako erreminta eta bitartekoekin. COVID-19aren pandemiarekin eta ikastetxeen itxierarekin ikusi dugu. Benetan eskolak ixtearen arazorik nagusiena zer da, biztanleriaren zati handi batek ez daukala Internetera konektagarritasunik? Telebista publikoa, irrati publikoak, aire libreko espazioa, liburuz betetako liburutegiak itxita, posta zerbitzua eta etxez etxeko banaketa funtzionamenduan... dituzten herrialdeetan, ez al da posible hezkuntza modu koordinatua eta kalitatezkoan irudikatzea eta antolatzea jada badauden elementu horietatik abiatuta? Zein iruditerik eta interesek egiten dute hori pentsaezina izatea eta indar guztiak egoera gehiago konplikatza bideratzea ezinezkoa den konektagarritasuna bilatu nahian edo hori ezer ez egiteko aitzakia bihurtuz?

Etorkizuna oinarrian dago; bihar abiapuntuan dago. “Osagai onak” denon eskura daude, baldin eta identifikatzen, lantzen eta partekatzen baditugu. Hori da aprendizen arteko aliantza aurrez aurre kokatzera ausartzen diren hezitzaileen zeregin nagusia: munduko esperientziak esnatuko dituzten oinarriko edukiak prestatzea eta horiek partekatza gonbidatzea. Lehen aipatu dugun moduan: “Ez egin ni bezala, egin nirekin”.

“Uste dut hainbat modu izan ditzakegula hona ekarri gaituen mundu hau ez dugula errepikatzerik nahi esateko. Baina horretarako orainaren gakoak irakurri behar dira, beste etorkizun batzuk irudikatu, eta eztabaidatu eta borrokatu. Eta hori irakurtzen ikasiz eta ‘osagai onak’ edukiz lortuko dugu”

“Mendekotasun kognitiboaren aurrean, eraginkorrena ‘osagai onak’ prestatzea eta partekatzea da. Nire ustez horrek izan beharko luke hezkuntza on baterako agindu bakarra”

“Benetan eskolak ixtearen arazorik nagusiena zer da, biztanleriaren zati handi batek ez daukala Internetera konektagarritasunik?”

ESPERIENTZIAK

FOREST BATHING CIRCUIT

Baso Bainu Zirkuitua naturan murgiltzeko

2020–2021 ikasturtean, Yolanda Trabudua zuzendari eta Ingeleseko irakasleak Baso Bainu Zirkuitua (Forest Bathing Circuit) landu zuen 1. eta 2. mailetako ikasleekin, Bilboko Rekaldeberri ikastetxeko lorategi botanikoan. Proiektu xume bezain aberatsa, hainbat arlo lantzeko aukera eman baitzien: ingelesa, japoniar kulturaren ezagutza, naturarekiko harremana, adin desberdinetako ikasleen arteko elkarlana, emozioak, sentimenduak eta lanerako baliabide berrien ezagutza, esaterako.

Sarritan, ez dago urrutira joan beharrik naturaz eta berdegunez gozatzeko. Nahikoa da ingurura begiratzea, eta dagoen horretan barneratzea, izan zelai handi, lorategi txiki, toki malkartsu edo baso zabal. Bilboko Rekaldeberri institutuan, horixe egin zuten duela bi urte: atzealdean utzirik eta ahazturik zegoen berdegune aldatatsu baztertua lorategi botaniko bihurtu zuten. Ezer ez ikustetik naturagune erabilgarri gisa ikustera pasatu ziren, eta begirada-aldaketa horrek aldaketak ekarri ditu irakaskuntzara ere. Azken bi ikasturteetan, ikasgai askotako irakasleak joan dira kanpoko espazio horretara irakaskuntza-jarduera han garatzera; horietako bat da Yolanda Trabudua zuzendari eta Ingeleseko irakasleak DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleekin aurrera eramandako Baso Bainu Zirkuitua.

Ingeles eskolako azken hamar minutuetan, sarritan ateratzen da Trabudua ikasleekin ikastetxeko lorategi botanikora bueltatxo bat ematera, ai-



rea hartzera eta naturarekin harremanetan egotera. Baso Bainu Zirkuitua proiektuarekin, are gehiago barneratua nahi izan zuen naturan. “Jatorria Japonian duen kontzeptua da bainu honena —dio Trabuduak— *Shinrin-*

yoku esaten diote japonieraz, Forest Bathing Circuit ingelesez eta Baso Bainu Zirkuitua euskaraz. *Shinrin*ek basoa esan nahi du japonieraz, eta *yokuk*, berriz, bainua. Beraz, *shinrin-yokuk* baso-bainu esan nahi du,



basoko giroan murgiltzea, naturaren barruan, zentzumen eta sentimendu guztiekin. Ez da basoan ariketa egitea, korrika egitea edo zaldiz ibiltzera joatea, baizik eta naturan murgiltzea, natura ikustea, usaintzea, dastatzea, entzutea eta ukitzea”. Horixe da ideia, naturaren parte sentitzea. Gauza sinplea dirudien arren, ez da hala, eta kostatu egiten da gorputz eta zentzumen guztiekin naturan barneratzea.

2050. urterako munduko biztanleriaren % 66 hirietan biziko dela aurreikusten da. Enviromental Protection Agency erakundeak egindako ikerketa baten arabera, amerikarrek, batez beste, beren denboraren % 93 barruko espazioetan pasatzen dute. Gure inguruan ere gauza bera gertatzen dela dio Trabuduak. “Gure ikasle askok ez dute naturarekiko harremanik, ez dakite aldapan, belarretan edo lokatzetan ibiltzen, beti asfalto gainean ibili izan direlako”. Irakasle asko ere beldur dira ikasleak eroriko diren, zikinduko diren... “Erortzen badira, lasai, altxatuko dira, jolas tokian ere eror daitezke; zikintzen badira, garbituko dira. Kontua da onartuta dagoela boligrafoarekin edo ordenagailuko edukiekin zikintzea, baina ez lokatzarekin; edo onartuta dagoela ordenagailuarekin ikastea, baina ez naturarekin, natura aparteko gauzatat hartzen baita. Hirietako lorategiak ez dira zapaltzen hemen, hori barneratuta daukagu; beste he-

rrialde batzuetan, oster, lorategietan eseri, etzan, egon eta ibili egiten dira. Han, parkeak gozatzeko dira; hemen, ez ukitzeko. Horregatik, begirada eta pentsamoldea aldatu nahi ditugu, eta naturan murgildu”. Trabuduak dio “negutegi-gizartean” bizi garela, eta horrela ari garela hazten. Arrazoi horregatik landu du baso-bainuaren proiektua ikasleekin. “Japonian helduek egiten duten ekintza da, baina niri garrantzitsua iruditzen zait txikitatik eta gaztetik hurbiltzea naturara, filosofia hori gaztetatik hartzea. Azken batean, pentsaera bat da, bizitzeko era bat, eta hori, urrunera

joan gabe, gure ikastetxeko lorategi botanikoan jarri dugu praktikan”.

Naturan murgiltzeko jarduerak

Naturan murgildu eta zentzumenak lantzeko, bost ekintzaz osatutako zirkuitu bat osatu zuten Rekaldeberrin.

1. **gunea:** landareak ukitu. Ekintza honetan, emozioak identifikatu zituzten. Ikasleek, landareen ingurura hurbildu, ukitu, eta sentitzen zutena adierazi behar zuten. Batzuek nazka edo antzeko zerbait sentitzen zuten, ez daudelako landareak ukitzera ohituta. Jarduera honek hiztegia



Ikasleak lehenengo guneko jarduera egiten; landareak ukitzen.

ESPERIENTZIAK: FOREST BATHING CIRCUIT



Ikasleak 2. gunetik 5. gunerako jarduerak egiten Baso Bainu Zirkuituan.

lantzeko balio du.

- 2. gunea:** arbola baten altuera neurtu. Arbolak nolakoak diren jabetzeko ekintza bat da. Laserra edo metro moderno bat erabili beharrean, atzamarren teknika erabili zuten korde-larekin arbola neurtzeko, eta jolas modura ibili ziren arbolak neurtzen.
- 3. gunea:** arbola besarkatu. Joko moduan planteatuta, ikasle bat itsua zen eta laguntzailea bestea. Azken honek ez zion esaten nora eramango zuten. Arbola batera iritsitakoan, arbola besarkatu eta sentitu behar zuten itsuak. Ondoren, hasierako puntura itzuli, begiak ireki, eta zein arbola besarkatu zuten asmatu behar zuten. Gero, deskribatu egin behar zuten bai arbola eta baita sentitutakoa ere.
- 4. gunea:** punteria landu. Harriak ontzi batean sartu behar zituzten. Gaur egun, makinek markatzen dute punteria, eta oso neurtuta izaten dute. Ikasleak konturatu ziren zehaztasuna lortzeko indarra neurtu egin behar dela.
- 5. gunea:** askatasuna. Bakoitza nahi zuten lekura joaten zen, gogoko txokora, animaliangana edo landareen gunera eta ondoren, deskribatu eta marraztu egiten zuten. Ariketa askeagoa da azken hau, filosofiarekin guztiz bat datorrena: murgilduz.

Baso Bainu Zirkuitua DBHko 1. eta 2. mailako ikasleekin landu zuten Trabuduak. “Aurrena, 2. mailakoekin, ni haien gidari nintzela; eta ondoren, 2. mailakoak 1. mailakoekin gidari izan ziren. Aldi berean, iaz 1. maila egin zutenak 2. mailan izango dira ikasturte honetan, eta urtebete gazteagoen gidari izango dira”. Adin desberdinetako ikasleen arteko harremanak sortzeko balio duela dio Trabuduak, normalean ez dutelako erlazio handirik. “2. mailakoek uste zuten 1. mailakoek ez zirela kasurik egingo, baina ez zen horrela izan. Gidari lanetan jarri ziren, murgiltzearen kontzeptua azaldu zieten, eta ekintzak aurrera eramaten lagundu

森林浴 (shinrin'yoku)
 Science and Technology Week
 Activity: FOREST BATHING CIRCUIT

Name.....1st surname.....2nd surname.....
 Date.....Group.....
 What is Forest Bathing?.....

FIRST SPOT: Identifying emotions
 Get close to the plant, touch it.

- How do you feel? Express your feeling using at least 4 adjectives 1.....2.....3.....4.....
- DESCRIPTION: Is the plant familiar?.....What is it? Write the plant's name.....It smells of..... The color/s is/are..... I like it because..... I don't like it because.....

SECOND SPOT: How tall is that tree?

- Tree 1: height.....meters.....Name of the tree.....
- Tree 2: height.....meters.....Name of the tree.....


THIRD SPOT: Embrace a tree (blindfolded)

- What is your tree like? (Young/ old/ancient—small/ big/huge/gigantic—beautiful/ugly—thin/thick—common/special.....
- How did you feel embracing the tree?.....
- My tree is.....


- How many shots did you get into the bucket? (5 shots for each bucket)
- Bucket 1.....bucket 2.....bucket 3.....

FIFTH SPOT: Walking freely and at ease both in the upper and lower parts of the garden

- How do you feel?.....
- Which part of the garden do you like best? Why?.....
- Which part of the garden do you like least? Why?.....
- Which tree/plant/animal/insect do you like best?.....
- Make a drawing of the most beautiful thing/plant/part of the garden.



Prepare 5 different activities, each team prepares 1	Organize teams before practice
At the end check that the students have finished the activity	Each member of the team fills in his/her observation paper Review and mark the activity back in the classroom with their teacher

2.DBH activity design	1.DBH task fulfillment
<p>FIRST SPOT</p> <p>Blind folded: choose a plant</p> <p>First step: guide the students to a green area that has been previously chosen.</p> <p>hydrangea flower beds (on the right hand side of the school building)</p> <ul style="list-style-type: none"> Get close to the plant, touch it. How do you feel? Express your feeling using at least 4 adjectives. (annotated chart "Identifying Emotions") Can you smell anything? <p>Second step: make the students squat down and touch a leaf of the plant, then a flower</p> <ul style="list-style-type: none"> Describe the feeling Can you tell what it is? Help the student with the description. They can use the mobile to look for more information. <p>SECOND SPOT: How tall is that tree?</p>  <p>You need a partner who stands at the base of the tree. Move a distance away from the tree then, holding your pencil at arms length, between your thumb and forefinger so that it brackets the height of your partner</p>	<p>We have to prepare a worksheet for 1.DBH.</p> <p>We will do it after Easter</p>

Ezkerreko bi dokumentuak ikasleentzako galdetegiak dira. Eskuineko dokumentua irakasleak egindako plangintzaren zati bat.


zieten; eta erantzun ona jaso zuten 1. mailakoen aldetik. Gainera, jarduera hau ebaluatu egiten dugu, notarako izaten da, eta horrek seriotasun handiagoarekin hartzen laguntzen du. Eta ez hori bakarrik, horrelako jarduerak ebaluatzeak ohiko azterketa-eredutik ateratzeko aukera ere ematen du”, erantsi du Trabuduak.

Emozioen kutxa irekitzen naturan
 Baso Bainu Zirkuitua Ingeleseko eskola-orduetan egin zuten, ingeleseko hiztegia lantzeko balio izan zien, eta, bereziki, naturarekin eta emozioekin lotutako hitzak eta esamoldeak lantzeko. Trabuduak onartzen du ez dela erraza emozioez eta sentimenduez hitz egitea, are gehiago nerabezaroan; haatik, helduarora edo zahartzarora iritsi arte itxaron gabe, lehenago hastearen aldekoa da. “Nerabeei asko kostatzen zaie sentitzen dutena adieraztea. Garai hori askatasunarekin lotzen da, baina, aldi berean, helburu bihurtzen da taldean onartua izatea. Hori dela-eta, asko neurtzen dute zer eta nola esan, besteak hor daudelako inguruak epaitzen. Askatzen dira, eta hitz egiten dute, baina, gelako liderrek ez dituztela onartzen ikusten badute, barre egiten dute esandakotik ihes egiteko eta horrekin ez identifikatzeko. Horrexegatik, uste dut naturarekin harremanetan egotea eta naturarekiko sentimenduak adieraztea errazagoa dela: ez da esan behar zelan sentitzen zaren zure lagunekin edo familiare-

kin, baizik eta landare edo animalia batekin. Natura ez da mugatzailea eta askeago hitz egiteko aukera ematen du. Orduan, emozioak identifikatzeko aukera eman dezake”.

Emozioen kutxa irekitzen laguntzen du naturak, eta baita gela barruko harremanak eraldatzen ere. Belarretan gora, lokatzetan irrastatuz eta lorategian euren kasa ibiliz interakzioak naturalagoak, trankilagoak eta askeagoak dira; gela barruan ez bezala, oihukatu daiteke, eta “askatasun hori antzematen da nerabeengan”, dio Ingeleseko irakasleak. “Espazioa aldatu egiten da, eta horrek beste sentsazio bat ematen du”. Horrexegatik, Trabuduak bezala, gainerako irakasleak ere hasita daude lorategi botanikora irteten eta gela barruko jarduerak hara ateratzen. “Ikasgai guztietan planifikatzen dira lorategian aurrera eramateko jarduerak”. Besteak beste, estazio meteorologiko bat eraikitzen ari dira Teknologia ikasgai; lorategiko lurra Deriora eramango dute zein baliabide mineral dituen aztertzeko; Frantseseko irakaslearekin, ahuakatea landatu zuten, eta, bide batez, landare horren inguruko hiztegia eta informazioa landu zuten frantsesez: non landatu, zein urtarotan, zenbat ur behar duen eta abar; Gorputz Hezkuntzan, ibilbide bat egin zuten hainbat trebezia lantzeko; liburuaren egunean, liburuak

gorde zituzten lorategian, eta haiek topatzen ibili ziren irrastatuz, eroriz... Gauza txikiak baina esanguratsuak dira asfaltoan jaio, hazi eta bizi diren gazteak naturan murgiltzeko.



Emozioen gurpila baliatzen dute emozioak identifikatzeko.
<https://fairygodboss.com/career-topics/emotion-wheel>
<https://psicopico.com/en/la-rueda-las-emociones-robert-plutchik/>

"Natura ez da mugatzailea eta askeago hitz egiteko aukera ematen du"
 Yolanda Trabudua

EKARPENAK

HEZKIDETZA

Hezkidetza-prozesuak martxan I: gakoak eta ikaskizunak

Hezkidetza lantzea ez da kontu sinplea; gizartean, parekidetasun eza estrukturala da, eta hezkuntza-erakundeetan, nonahi aurkitu ditzakegu horren erroak. Ez dira gutxi, baina, hezkidetzaren bidea hartu duten eskolak. Testu honen egileek aukera izan dute ikerketa bat egiteko eta ikastetxe batzuen esperientzia gertutik ezagutzeko; horietan aritu diren eragileek egileekin partekatu dituzte euren gogoetak.



Amaia ALBERDI, HUHEZIKo irakaslea (MU)
Amelia BARQUIN HUHEZIKo irakaslea (MU)
Miren BARAGUAN, Euskara eta
Kulturartekotasunaren arloko irakaslea

Hezkidetza hezkuntza-prozesu integrala da, non pertsona guztien erabateko garapena eta berdintasuna sustatzen den. Prozesu horretan, desberdinke-riak eta diskriminazio-mekanismoak hautematen dira, eraldatzeko tresnak ezartzen dira, eta aniztasun afektibo-sexuala eta genero-adierazpen askea bultzatzen dira. Aniztasunarekin adeitsuagoa izango den gizarte berdinzale bat eraiki dezaten prestatzen ditu hezkuntza horrek ikasleak.

Badira urte batzuk hezkuntzan hezkidetzaz hausnartzen eta hitz egiten dela, gaia lantzen ari garela. Hain zuzen ere, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe askotan, lanketa hori 2013tik aurrera egin zen, *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana* egitasmotik abiatuta (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, 2013).

Egun, indarrean dago *II. Hezkidetza-plana. Berdintasunaren eta tratu*

onaren bidean (2019-2023). Sei helburu ditu plan horrek: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta hezkidetzaren sustatzea; koordinatzeko eta jarraipena egiteko egitura egonkorra sortzea; irakasleak hezkidetzaren prestatzea; familiak eskolara gerturatzea; ikastetxeetara egokitu-tako hezkidetzaren planak sortzea, eta, azkenik, ikasgeletarako hezkidetzaren materialak sortzea.

Hezkidetzaren lantzea ez da kontu sinplea; gizartean, parekidetasun eza estrukturala da, eta hezkuntza-erakundeetan, nonahi aurkitu ditzakegu horren erroak. Ez dira gutxi, baina, hezkidetzaren bidea hartu duten eskolak. Testu honen egileok aukera izan dugu ikerketa bat egiteko eta ikastetxe batzuen esperientzia gertutik ezagutzeko; horietan aritu diren eragileek gurekin partekatu dituzte beren gogoetak. Aitortza egin nahi diegu praktika eta egoera errealetan sortutako jakintza kolektiboari; eskerrik asko, bihotz-bihotzez, ibilbide honetan parte hartu duzuen guztioi.

Testuingurua

Ikertu ditugun eskolek Alboan GKEarekin elkarlanean abiatutako hezkidetzaren ibilbide bana garatu dute. 2015-16 ikasturtean, erakundeak autodiagnostikoak egiteko metodologia parte-hartzailea sortu zuen hainbat hezitzaileekin batera. Partaidetzaren oinarritutako prozesu horren helburua zen ikastetxearen beharretara egokitutako Hezkidetzaren Plana diseinatzea, inplementatzea eta ebaluatzea, hiru urteko zikloetan.

2020. urtean, 15 ikastetxe eta hezkuntza ez-formaleko 3 talde zeuden prozesu horietan martxan. 2020ko udaberrian, Alboan elkartek eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko kide batzuek talde bat osatu genuen, eta ikerketa kualitatibo bat jarri genuen abian, prozesuaren gaioak ezagutzeko. Horretarako, zortzi ikastetxetako eragileak elkarriketatu genituen (publikoak zein itunpekoak, handiak zein txikiak, Lehen Hezkuntzakoak zein Bigarren Hezkuntzakoak, hiru probintzietakoak...). Elkarriketatu guztiak prozesuak aurrera eramateko sortu ziren talde eragileetako kideak dira; gainera, guztiak dira irakasleak.

Ikerketa gauzatzeko, alde batetik, bi edo hiru kide elkarriketatu ditugu ikastetxe bakoitzean; eta, bestetik, talde-eztabaida bana egin dugu



haiekin. Elkarriketak eta eztabaidak grabatu, transkribatu, kategorizatu eta analizatu egin ditugu.

Artikulu honetan, ikerketa horretan sortutako gogoetak eta ondorioak plazaratzen dira, ikastetxe horientzat zein etorkizunean prozesu berean sartuko direnentzat baliagarriak izango direlakoan.

Hezkidetzaren lantzean, arlo batzuen beste batzuen baina gehiago garatzen dira

Ikerketan ikusi zenez, arlo guztiak ez ziren modu berean garatu, batzuen besteak baino sakonago edo "errazago" landu ziren. Arlo garatuena artean, feminismoak aldarrikatzen dituen **data garrantzitsuenetan antolatzen diren jarduerak** azpimarratu dira. Ikastetxe guztietan, zenbait jarduerak jartzen dira abian egun zehatz horietan, martxoaren zortzian batez ere (baita azaroaren 25ean, maiatzaren 17ean... ere). Zentro gehienetan, bazegoen ohitura hori, Alboan elkartearekin batera hezkidetzaren prozesua martxan jarri baino lehen. Egun, ikastetxeetan horiek lantzea jada oso onartuta dagoenez, ohi-turari eustea abiapuntu egokitzat jo da beste ekimen batzuen bultzatzeko. Hala ere, irakasle batzuek adierazi dute ekintza horiek puntualak direla eta hezkidetzaren askoz harago eraman beharko litzatekeela.

Hizkuntzaren erabilera ez-sexista ere askotan landu da. Ikastetxe batzuetan, gai horri heldu zaio, testu

idatzietan nagusiki. Dokumentuak orrazten dira, eta zentroaren komunikazioak (familiekikoak nagusiki) zaintzen dira. Gaztelanian jartzen da arreta batez ere, euskarak baino oztopo gehiago dituelakoan, eta maskulino generikoa saihesteko ahalgina azpimarratzen da. Aipatzen da, halaber, irakasle batzuek garrantzia kentzen diotela gaiari klaustroetan, eta komunikazioaren aldaketak egiteko aukeraren aurrean erresistentzia agertzen dutela.

Ikastetxe ugariak ari dira jolastokiaren inguruan gogoeta egiten eta eraldaketak abian jartzen. **Jolastokiaren erabilera**, banaketa eta funtzionamendua da ikastetxe askotan aurreratu dagoen jarduna. Jardunbide egokien artean, bi dira nabarmentzekoak: alde batetik, azaldu dute ikasleak eta irakasleak artean egin beharreko prozesua dela; bestetik, gune komunen osakeran eta plangintzan txantiloak erabili eta adostekak duen garrantzia azpimarratu dute. Hala ere, ez dituzte aldaketak bukatutzat eman: prozesu luzeak dira, eta pixkanaka gauzatzen dira. Hori dela eta, kasu askotan, espazio osoa ez da aldi berean eraldatu; zatika ari dira aldaketak egiten.

Genero-perspektiba eguneroko jardunean eta materialetan txertatzea maiz aipatzen da, baina, gehienetan, desafio gisa; ez da gauzatu oraindik. Helburu garrantzitsua da curriculumean eragitea, nahiz eta oraindik urrun ikusten duten. "Hau programazioan sartu behar dugu, eta denok ja-



kin behar dugu patriarkatua zer den, H2O ura dela dakigun bezala, ezta? Badaude oinarri batzuk; zein dira? Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan, hezkuntza-sailaren ustez, hau. Bale, ba eman dezagun hori. Nork? Denok. Baina programazioetan. [...] Ni Euskarakoa baldin banaiz [...], nik nire curriculuma buruz badakit. Orduan, hau curriculum bat baldin bada, denok jakin beharko genuke buruz zer ematen dugun eta noiz. Gero, gustatuko zaizu edo ez, edo epela irudituko zaizu edo ez... Baina hau legea da, hau eman egin behar dugu, ezin diezaiokegu uko egin. Eman behar badugu, jar ditzagun emateko baliabideak, "hau zein mailatan? Non? Noiz? Nork?"

Azkenik, desorekak detektatzen dira klaustroetan, generoari dagokionez. Haur Hezkuntzan, ia profesional guztiak emakumeak dira; Lehen Hezkuntzan, berriz, gizon gehiago daude, baina oraindik nabaritzen dira diziplinen arteko aldeak. Bigarren Hezkuntzan, aniztasun handiagoa hautematen da, baina ziklo batzuk erabat feminizatuta daude, eta beste batzuk, aldiz, erabat maskulinizatuta. Itunpeko ikastetxe batzuetan, aipatzen da kontratazioak egiterakoan oreka bilatu daitekeela; baina etorkizuneko aukera moduan ikusten da, ez orain martxan dagoen prozedura gisa.

Zailtasunak eta erresistentziak

Hezkidetza martxan jartzeko prozesua gorabeheratsua da, eta askotariko oztopoak sortzen dira. Aipatuena

Genero-perspektiba eguneroko jardunean eta materialetan txertatzea maiz aipatzen da, baina, gehienetan, desafio oraindik. Helburu garrantzitsu moduan daukate curriculumean eragitea, nahiz eta oraindik urrun ikusten duten

denbora falta izan da, hamaika eskakizun eta larrialdi sortzen direlako egunerokoan; irakasleek nabarmendu dute beste hainbat programek ere arreta eskatzen dutela. Eskola publikoen kasuan, gako garrantzitsuen artean, azpimarratu dute bitarteko irakasleen joan-etorriek, gehiegitan, proiektu pedagogikoen jarraipena oztopatzen dutela. Gainera, esan dute joan-etorri horiek eta erretiroek urteetan pilatutako jakintzaren eskualdatzea zailago egiten dutela.

Baina badaude beste oztopo batzuk ere. Horien artean, pertsona batzuek agertzen dituzten erresistentziak dira nabarmenenak. Gaur-gaurkoz, salbuespena omen da irakasle batek gaiarekiko desadostasuna modu irekian adieraztea; aldiz, batzuek diote ez direla behar proposatutako ekimen eta jarduera horiek, "tontakeriak" direla, edota gehiegikeria dela. Bestalde, gehien aipatzen den erresistentzia pasibotasuna da: pertsona horiek ez dute desadostasuna ozenki adierazten, baina ez dute laguntzen, eta ez dute gauzatzen talde eragileak proposatutakoa. Nor dira? Orokorrean, ez dira asko: pertsona solte batzuk, talde txiki bat edo batzuk, ikastetxearen arabera.

Elkarrizketatuek fenomeno hori ez dute adin zehatz batekin lotzen, ez nagusia izatearekin, ezta gaztea izatearekin ere. Generoari dagokionez, bestalde, denetik dagoela esaten dute gehienek, baina esaten dute etapa eta ziklo batzuetan gizonak direla nagusiki horrela jokatzeko dutenak. Hain zuzen ere, oso ingurune maskulinizatuetan gertatzen dena jartzen dute erdigunean: ingurune horietan, gizonen arteko konplizitate eratzten da, eta maskulinitate tradizionalarekin lotutako adierazpenak formulatzen dira (komentario matxistak eta txiste desegokiak, adibidez). Testuinguru horietan, emakume batzuek ere bilatzen dute gizon horien oniritzia, eta ez diete aurre egiten; talde eragileko emakumeentzat, berriz, giro desatseginak dira.

Zailtasun moduan agertu den beste kontzeptu bat parekidetasunaren isla izan da; hau da, eskola-elkarteko pertsona askok uste omen dute berdintasunera iritsi garela. Hori dela eta, ez dute beharrezkoa ikusten hezkidetza lantzea.

"Baina uste dut ez garela oso kontziente, gaur egun. Askeak eta ez dakit zer garela uste dugu, baina

baldintzatuta gaude oraindik. Horren harira, ikusten ditut erresistentzia batzuk. Eta sentsibilitate batzuk. Eta sentsibilitate horiekin borrokan ibiltzeak neke handia sortzen du; baina, nire ustez, horixe bera da hezkidetzako proiektuak duen oinarritzko zeregina”.

Nola erantzun erresistentziei?

Erreakzioak askotarikoak dira: alde batetik, irakasle batzuek haserre aipatzen dute, haserre hori ez erakusten saiatsen diren arren; beste alde batetik, elkarrizketetan maiz agertu da, aurre egiteko estrategia moduan, ados ez daudenekin behin eta berriz hitz egitea. Badira kontra agertzen direnei kasu gehiegi egiten ez dietenak ere, gehiegizko arreta jartzea energia xahutzea dela uste baitute. Horregatik, elkarrizketatuek nahiago dute energia hori positiboki bideratu, ekimenak aurrera ateratzeko. Gainera, irakasle batzuek nabarmentzen dute urrats hori egin dutela: kritiken eraginez indarrak galtzetik lagundu nahi duen gehiengoarekin lan egitera. Azkenik, erresistentziei aurre egiteko, zuzendaritzaren babesa ere lagungarri gerta daitekeen baliabide gisa agertzen da.

Sozializazioa, komunikazioa eta lankidetzaren

Prozesua ikastetxeko eragileekin partekatzea oso garrantzitsutzat jotzen dute elkarrizketatuek. Sozializazio hori irakasleekin egiten da nagusiki, baina baita familiekin ere, eta, hein txikiago batean, ikasleekin. Parteka-

tze hori askotarikoa da: egiten diren urratsen berri ematea, kolektibo horiengandik informazioa jasotzea, lankidetzaren aritzea... Irakasle gehienek, ordea, azaldu dute ez dutela nahikoa egin alderdi horretan. Hori dela eta, uste dute komunikazioak askoz arinagoa izan beharko lukeela etorkizunean. Arlo hori da, hain zuzen ere, gehiegi asetu ez dituen alderdietako bat. Horren ondorioz, ibilbidea ebaluatzen dutenean, elkarrizketatuak oro har ez daude erabat pozik.

Irakasleak ez diren lankideak kontuan hartzea

Dirudienez, irakasle ez diren eskolako langileekin izan duten harremana da gabezia moduan hautematen den beste alderdietako bat. Izan ere, askotan, ez dituzte eskolako beste lankideak aintzakotzat hartu prozesua aurrera eramateko garaian. Beraz, uste dute posible dela komunikazioa eta lankidetzaren hobetzea. Ikastetxe batzuetan, aldiz, irakasleak ez diren langileek ere hartu dute parte talde eragilean (eskolazaina, jangelako langilea, idazkaria...), eta horrek nabarmen aberastu du prozesua.

Prestakuntzaren garrantzia

Elkarrizketatu guztiek adierazi dute ezinbestekoa dela hezkidetzaren inguruko gaietan prestatzea. Azaldu dutenaren arabera, oinarritzko trebetasunak eskuratu dituzten arren, beharrezkoa da gehiago sakontzea. Gainera, uste dute ikastetxean eman beharreko prestakuntzak irakasle guztientzat izan beharko lukeela,

ez soilik talde eragileko kideentzat. Ikastetxe batek, estrategia modura, talde eragileek jasotzen dituzten prestakuntza-saioak klaustro osora zabaltzeko bideak ireki ditu. Aipa dezagun, bidenabar, familiei prestakuntza eskaintzea desiragarri jotzen dutela, baina familiak prestakuntza-saioetara erakartzeko zailtasuna ere aipatu dute. Hori da, hain zuzen ere, eskola batzuetan azpimarratu den kezka nagusia: familiekin komunikazioa. Bestalde, ez da agertu ikasleekin hezkidetzaren prozesu hau partekatze beharrik.

Askok adierazi dute prestakuntza egokia lortzea lan mardula izan daitekeela. Adibidez, esperientzia batzuk azaldu dira, non kanpoko prestatzaileak kontratatu diren; baina horrek ez dio premiari espero zen bezala erantzun. Aipatzekoa da ikastetxe batzuetan hezkidetzaren inguruko prestakuntza irakasleen ordutegian sartzen dela; printzipioz, derrigorrezkoa litzateke guztientzat kasu horretan. Dena dela, ikastetxeren batean adierazi dute ezin zela ezarri derrigorrean, eta borondatezko gisa eskaini da, erresistentziak ez areagotzeko.

Horiek gorabehera, curriculum-premiekin lotutako trebakuntza-saioak hobetsi nahi dituzte ikastetxe batzuetan, kide batzuen arbuioa saihesteko.

Bestalde, hezitzaile batek azaldu du modu zurruna dagoela prestakuntza ulertzeko. Adierazi duenez, batzuen ustez, prestakuntza kanpotik etortzeko aditu batek kudeatutako saioa izango litzateke. Haren ustez, aldiz, hausnarketa kolektiboa egitea edota



EKARPENAK: HEZKIDETZA

talde eragileko kideek hezkidetza-prozesua elkarrekin diseinatzea ere bada prestakuntza: "Saio horiek, argi eta garbi, nire ustez, prestakuntza dira, baina elkarriketan oinarritutako prestakuntza, eta ez aditu bezala ematen den zer edo zer. Irakasleen arteko elkarrekintza, eta beno, hor gauden guztion arteko elkarrekintza oinarritutako prestakuntza une orokoa da.[...]. Ez du zertan aditu batek etorri gure arteko elkarrekintza hobetzeko edo hazteko".

Aurrean dauden erronkak: sexu-heziketa eta LGTBIQ+ errealitatea

Galdetzen zaienean, irakasleen erantzuna da sexu-heziketa oso garrantzitsua dela, baina, aldi berean diote ez dela arreta handiz lantzen edo hezkidetza ez dagoela programako lehentasunen artean. Erronka moduan ikusten dute. Oso hedatuta dago kanpotik adituak ekartzeko ohitura; normalean, haiek izaten dira ikasleekin aritzen direnak. Bigarren Hezkuntzako irakasleek ontzat ematen dute estrategia hori, haien ustez gazteek errazago hitz egiten dutelako gai horien inguruan beren tutoreak ez diren eta ezagutzen ez dituzten hezitzaileekin. Lehen Hezkuntzako irakasleen artean, bestalde, ez dago adostasunik; batzuek uste dute tutoreek gehiago ahalegindu beharko luketela eta arlo hori bereganatu; beste batzuek, ostera, kanpoko laguntza hobesten dute. Haur Hezkuntzan, ordea, ez da kanpoko ekarpena beharrezkotzat jotzen. LGTBIQ+ errealitateari dagokionez, hori ere garrantzitsutzat jotzen dute, eta kontuan hartzen dute, baina ez dago lehentasunen artean, eta ez da sakontasunez lantzen. "Egia esaten baldin badizut, ez dut uste [sexu-heziketa] asko ukitu dugunik. Ez naiz behintzat kontziente, eta, alde batetik, pena ematen dit, zeren egia da oso faktore inportantea dela, eta oraindik eta gehiago gure txikiekin. Zenbat eta lehenago hasten zaren lan horietan, askoz hobe. [...]. Eskolan ere egiten dugu, tutoreok egiten dugu lan, baina zenbait gauzatarako askoz egokiagoa da kanpoko pertsona bat etortzea, eta iruditzen zait umeez ere bestelako askatasuna sentitzen dutela hitz egiteko orduan; etorri den jendearekin eduki ditugun esperientziak, behintzat, positiboak izan dira".

Beste ikastetxeentzako aholkuak

Elkarriketatutako irakasleei eskatu

zaie aholku bat emateko, prozesuan murgilduko diren beste ikastetxe eta hezitzaileentzat. Hainbat arlo ukitzen dituzte proposamenek. Hona hemen horietako batzuk:

- Talde eragileko kideen artean elkar zaindu.
- Pazientzia izan eta ehundutako talde eragilea sortu.
- Lasaitasunez hartu, hezkidetza eskolako oinarri bat da; ez jarri helburu handiegia, apurka-apurka lantzen joan behar den zerbait da.
- Ausartak izan, eta aintzakotzat hartu aldaketa guztiak; gutxi bada ere, zerbait aldatu da.
- Eskola osoaren eraldaketa jarri jomugan, ez norbanakoena soilik; guztion nahiak biltzeak izan beharko du erronka.
- Talde eragilea txikia bada ere, indartsua izan dadila, feminista.

Zailtasun moduan agertu den beste kontzeptu bat parekidetasunaren isla izan da; hau da, eskola-elkarteko pertsona askok uste omen dute berdintasunera iritsi garela. Hori dela eta, ez dute beharrezkotzat hezkidetza lantzea

Laguntza behar izanez gero, eskatu, ez kikildu.

- Helburuak argi izan eta transmititu; komunikazioa oso garrantzitsua da.
- Lan egiteko gogo handia izan, baina gogoratu: errespetatu pertsona guztien erritmoak.

Irakasleen hitzekin amaituko dugu artikulua. Bigarren artikuluan, beste gako batzuei helduko diegu. Bitartean, ez dadila amaitu eskola moreen iraultza!

"Ausartak izatea, eta berdindio aldaketak zein tamainatakoak diren, aldaketak dira. Orduan, txikia bada, ba txikia da. Zerbait aldatu dugu".

"Nik esango nioke, talde eragilea txikia bada ere, potentia izan behar duela. Lider den horrek feminista erradikala izan behar duela.[...] Eta zer esango nuke? Ba laguntza behar balu, gure ikastetxera etortzeko [...], gu laguntzeko prest gaudela<2.

"Programazioan sartzeko... Irakasleontzat, programazioan ez dagoena ez da existitzen. Egia da [...], ba zure programazioan lerro bat badago, lerro batekin nahikoa da, ze zure lerro bat, matematikakoaren lerro bat, beste lerro bat... 10 lerro da ikasturte batean, eta orain egiten duguna baino hamar aldiz gehiago da".

"Nahiz eta euren ustez pausoak handiak ez izan, hau da pauso txikiak eman, eta uste badute ez duela ezertarako balio, jarraitu. Ziur nago zer edo zertarako balio duela eta eurek pentsatu baino gehiagorako balio duela".

Erreferentzia erabilgarri batzuk:

Ikastetxe horiek guztiek erabili duten autodiagnostikoetarako metodologia parte-hartzailearen berri izan nahiko bazenute, hementxe dituzue horretarako egin diren argitalpenak. Lehen biek hezkidetza-autodiagnostikoak egiteko metodologia biltzen dute; hirugarrenean, aldiz, ikerketaren nondik norakoak eta ikaskizun guztiak jaso dira:

- Alberdi, A.; Lezaún, M.; Uribe-Etxeberria, Z. (2020). Eskola hezkidetzatik birpentsatzea. Bilbo: Alboan Fundazioa.
- Basurto, V (2020). Eskolan Hezkidetza aztertze gakoak. Bilbo: Alboan Fundazioa.
- Barquín, A.; Barangan, M.; Alberdi, A.; Lezaún, M.(2020). Hezkidetza abian jartzeko prozesuak: gakoak eta ikaskizunak. Bilbo: Alboan Fundazioa.



LENBUR
FUNDAZIOA

LEGAZPI - GIPUZKOA BURDIN HARANA



MIRANDAOLAKO BURDINOLA

Euskal Burdinaren Museoan eta Burdinolan, Euskal Herrian burdinolek izan zuten garrantziaz jabetuko gara, garaiko teknologia aztertuz. Olagizon, meatzari eta ikazkinen bitartez, garai hartako lanbideak ezagutuko ditugu. Energia mota desberdinak bereiztuko ditugu eta jankin-min zientifikoa piztuko dugu.



AITON-AMONEN ESKOLA

1950. hamarkadako gizartearen murgilduko gara garaiko eskolara gerturatuz eta gaurko eskolarekin dituen ezberdintasunez jabetuz. Ikasleengan jakin-mina piztu eta belaunaldien arteko harremana sortzea eta genero-berdintasunaren alde lan egitea izango da gure helburua.



GUNE BERRIA!!

FABRIKA

XVIII.mendetik XX.mendera bitarteko iraultza industrialia ezagutuko dugu, garaiko aldaketa handiak aztertuz: makinak, ekoizte-sistema berriak, gizartea, eta abar. Euskal Herriko industrializazioa eta orduko lan espezializazioa ikusiko ditugu besteak beste.

ikasketara-maila bakoitzari egokitutako bisitak

Mirandaolako parkean: frontoia, iturriak, merenderoak, haur parkea, pista jokuak, ibilbideak, eta abar...
Herrigunean: Parke estalia, arkupeak, frontoi estalia, eta abar...



hezkuntza@lenbur.com | www.lenbur.com | 943 73 04 28



AHALDUNTZE ESKOLA

GATAZKEN BITARTEKARITZA

Elena Egiguren eta Leire Inza

Jirafaren eta txakalaren arteko dantza

Elena Egiguren eta Leire Inza abokatuak eta bitartekariak dira. Komunikazio ez-bortitzean oinarritzen dute euren lana eta “The Centre for Nonviolent Communication” erakundearen formatzaile-agiria lortzeko prozesuan daude biak. Duela lau urte Eralda bitartekaritza zentroa zabaldu zuten Tolosan eta bertan bitartekaritza zerbitzua eskaintzen diete desadostasunak dituzten bikoteei eta familiei. Gainera, Eralda Mediazio Eskolak ere formakuntza eskaintzen die elkarteei, irakasleei edota hezitzaileei. Txakala eta jirafa parez pare jartzen direnean, jirafaren begiradaz eta duen bihotz handia aintzat hartuz, elkar ulertzeko gonbitea egiten dute Egigurenek eta Inzak.

Zer da bitartekaritza eta zein da zuen bitartekaritza eredua?

Leire Inza: Bitartekaritza prozesu bat da eta gure bitartekaritza eredua Komunikazio Ez-Bortitzean oinarritzen da. Prozesu horren helburua ez da soilik akordioetara iristea, guk begirada beharretan jartzen dugu. Oso garrantzitsua da norberak sentitzen duena identifikatzea eta gerora, beste pertsonari zer gertatzen zaion ulertzea, zergatik jokatu duen horrela. Behin ulermena lortuta, adostasunerantz abiatzen gara.

Elena Egiguren: Bitartekaritza eredu honek edozein motatako gatazkak edo desadostasunak bideratzeko balio du, beharrak unibertsalak baitira. Gatazketan deskonexio bat egoten da beti; nor bere buruarekin deskonektatu du eta bestea etsai edo arerio gisa ikusten du. Konezio hori berreskuratzea da gakoa; nola gauden eta zer behar dugun begiratzea. Eta besteari begiratzea; zer gertatzen zaion, zergatik egin duen egin duena, zer behar dituen. Ulermenaren bidez elkarrengana gerturatzeko pausoak ematen ditugu. Eta geroz eta gertuago egon, orduan

eta errazagoa da konponbidearen bila joatea.

Familiekin egiten duzuen lanaz gain, ikastetxeetan ere aritzen zarete irakasleak trebatzen, ezta?

L. I.: Eskolan gatazkak kudeatzeko tresnak izatea oso garrantzitsua da. Ikastetxeetan ikastaroak eman izan ditugu, Berritzeguneetan tailerrak ere bai...

E. E.: Eskolan, batzuetan haurren arteko gatazken aurrean bi jarrera egoten dira: alde batetik, “haien artean konpondu daitezela”. *Adostasunen txokoa* dute hainbat ikastetxetan eta gatazka beraien kabuz kudeatzen uzten diete haurrei. Baina norbaitekin talka egin dugunean eta emozioak pil-pilean daudenean, ez gara gai bestearekin egoteko. Urrun ikusi nahi dugu, denbora behar dugu emozio horiek guztiak baretzeko. Oso garrantzitsua da bi aldeak entzutea eta nola dauden, zer gertatu zaien... galdetzea. Eta, era berean, bi aldeei elkar entzuteko espazioa eskaintzea. Behin beharrak identifikatuta, agian lagundu diezaiokegu behar horiek zaintzeko beste estrategia batzuk garatzen. Bestetik,

barkamena eskatzeko esaten zaie. Baina era horretan ez dute ulertzen gertatu dena.

Beraz, egoera horietan helduen esku-hartzea beharrezkoa ikusten duzue.

E. E.: Bai. Eta oso garrantzitsua da bi aldeak prestatzea elkarrekin mahai batean edo adoste-txokoan esertzeko zeren bestela egoera oso bortitza izan daiteke. Helduok lagun diezaiekegu prozesu horretan baina oso polita da baita ere gela bakoitzean adin jakin batetik aurrera ume bat edo bi prestatuta egotea, zeren beraien artean, berdinen artean, bestelako konexioa sentitzen dute. Helduak autoritate figura du baina beraien artean hitz egin eta konpondu ahal izatea, magikoa izaten da beraientzat. Konfiantza eta segurtasuna ematen die.

Zer tresna behar ditu irakasle batek gatazken bitartekaritzan lan egiteko?

L. I.: Lehenik, enpatia.

E. E. : Bai, besteari entzun ahal izatea. Enpatia hitza asko erabili da eta gaur egun bere esanahia galdu duela

iruditzen zaigu. Komunikazio Ez-Bortitzak egiten duen proposamena asko gustatzen zaigu: besteari entzutea eta bere bizipena den moduan jasotzea, epairik eta kritikarik gabe. Enpatia lantzeko hainbat ariketa egiten ditugu: batek zerbait kontatzen du eta besteak entzun egiten dio, besteak esan diguna islatzea izan liteke beste ariketa bat, edo batek hitz egiten duenean hori sentimenduetara eta beharretara itzultzea...

L. I.: Norbaitekin haserretzen garen beste etsai gisa ikusten dugu eta gu irudi hori desegiten saiatzen gara.

E. E.: Eskoletan enpatiaren zuhaitzak erabiltzen ditugu. Komunikazio Ez-Bortitzak erabiltzen duen tresna da. Lehendabizi objektiboki deskribatzen da gertaera bera, alderdi emozionala alboratuta, kamera batek grabatu balu bezala. Eta ondoren espazioa ematen zaio bakoitzari gertaera horren aurrean zer pentsamendu izan dituen azaldu dezan. Gero nola sentitzen diren galdetzen diegu eta zer behar dauden horren atzean. Sentimenduek hainbat behar asetuak dauden ala ez adierazten dute eta horiek identifikatzea oso garrantzitsua da baina sakonago begiratzen dugu. Nerea Mendizabalen *Zutani* jolasa erabiltzen dugu. Sentimenduak eta beharrak azaltzen dituzten karta batzuk dira; umeekin lantzeko oso baliagarriak.

L. I.: Askotan, pertsona bat nola dagoen galdetzen dugunean erantzunak hiru izaten dira: haserre, triste edo pozik. Baina kartek beste sentimendu batzuekin identifikatzen laguntzen dute, sakontzen laguntzen dute.

Beraz, enpatia lantzea da garrantzitsuen.

E. E.: Bai. Komunikazio Ez-Bortitzak bi ardatz ditu: alde batetik, enpatia sentitzea eta bestetik, zintzotasunez adieraztea. Batzuetan gauzak kontu handirik gabe botatzen ditugu eta horrek bestearengan eragina du. Bestea gaizki sentitzen da, itxi egiten da edo erasora jotzen du eta gatazka sortzen da. Baina gu nola sentitzen garen azaltzen dugunean, ez dago gaitzespenik edo kritika



zuzenik eta komunikazioa askoz ere errazago da.

Gatazkak konpontzeaz ari gara baina prebentzio lana ere egin liteke. Nola planteatzen duzue zuek?

E. E.: Gatazketan geure buruarekiko konexioa galtzen dugu. Garrantzitsua da une horretan nola gauden aztertzea; blokeatuta, minduta, beldurtuta, haserre... Eta gero geure buruari zer behar dugun galdetzea; goxotasuna, ulermena, espazioa, intimitatea...

Eskoletan, adibidez, polita izango litzateke sentimenduen leihoa irekitzea eta egunero unetxo bat hartzea nola gauden aztertzeko. Horrekin prebentziorako bidearen zati handi bat egina egongo litzateke. Gorputzari entzuten ikastea da, eta sentimendu horien atzean zer behar egon daitezkeen ikustea eta izena jartzea. Behar horiek unibertsalak dira, gizaki guztiok partekatzen ditugu. Bestalde, garrantzitsua da bereiztea elkarrizketetan noiz ari naizen entzuten eta noiz adierazten eta errespetuz elkarrizketarako bide berri horiek ikastea, espazioak sortzea. Ez dugu zertan berdin pentsatu baina errespetutik hitz egin dezakegu.

L. I.: Norbait ulertzeak ez du esan

nahi esaten ari dena partekatzen dugunik edo ados gaudenik, baina errespetuz hartzen dugu bestea.

E. E. : Komunikazio Ez-Bortitzean bi komunikatzeko modu ikusten ditugu. Lehena orain arte ezagutu duguna da: bestea da erruduna, bestea da gaiztoa. Hori adierazteko txakalaren irudia erabiltzen dugu. Aldi berean, guk proposatzen duguna da jirafaren kontzientzia piztea: ulerkerria izatea. Jirafak lepo luzea du eta perspektiba handiagoarekin ikusteko aukera ematen dio horrek, bihotz handia du... Eta txakalak, nahiz eta moduak ez zaindu, informazio balioetsua dakarkigu. Asetu gabe ditugun beharrez ohartarazi nahi digu. Beraz, bi irudiek asko laguntzen dute gaia eskoletan lantzeko.

Sinbolo horien bidez errazago barneratzen al dute kontzeptua haurrek?

L. I.: Bai. Jolasaren bidez errazago barneratzen dute dena. Hala ere, helduekin ere erabiltzen ditugu panpinak.

E. E.: Bai, helduoi ere laguntzen digu entzuteko eta adierazteko hainbat modu daudela barneratzen, eta bide batez, konexio handiagoko harremanak lortzen.

GALDEIDAZU

ZEIN DA EH BILDUREN HEZKUNTZA PROPOSAMENA GARAI BERRIETARAKO?

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiot **Hik Hasiri** orriotan gure proposamena aurkezteko aukera emateagatik.

Badirudi datozen hilabeteetan euskal hezkuntzari bultzada bat emateko aukera ireki daitekeela mendebaldeko hiru probintzietan, hezkuntza hitzarmen bat osatzeko moduan egon gaitzkeela. Gure borondatea da goi mailako eztabaida politiko bat egitea, eta modu parte-hartzailean egitea, hezkuntza hitzarmen bat adostasun sozial eta politiko zabal baten emaitza baino ezin baitaiteke izan. Izan ere, hezkuntza komunitatearen parte-hartzerik gabe nekez eraikiko dira oinarri sendoak ziklo berri emankor baterako.

Gizarte kontziente batek eta hezkuntza komunitate ahaldundu batek baino ezin dezake eraman euskal hezkuntza agertoki berri batera. Eta, gaude, elkarrekin bat beharko genukeela hezkuntza “estatu auzizat” hartzean. Hau da, herri-eraikuntzan eta gizartearen garapenean funtsezko zutabe den neurrian, hezkuntzak alderdikerietatik salbu behar duela, Espainian gertatzen ez den bezala. Gogo horrekin egiten dio aurre EH Bilduk momentu honi eta eztabaida sozial eta politikoa aberasteko asmoz ondu dugu jarraian aurkeztzen dizuegun proposamena.

Zergatik orain?

Lehenik eta behin badago beharra euskal hezkuntza eraberritzeko. Co-



PELLO OTXANDIANO

EH BILDUKO PROGRAMA
ARDURADUNA



vid-19ak gauza asko erakutsi dizkigu, batzuk lehendik bagenekizkienak. Gure indarguneak eta ahulguneak jarri ditu agerian, herri-erronkak zehaztasunez identifikatzeko argia eman du. Besteak beste, ikusi dugu badugula beharra euskal hezkuntzaz gogoeta estrategiko sakon bat egiteko, gehiagorik itxaron ezin dezakeena. Izan ere, badago zer hobetu eta badago nondik ikasi. Besteak beste, eraldaketa pedagogiko sakon baten beharrean gaudela deritzogu, zeinak digitalizazioaren aldagaia ondo txertatzen asmatu behar duen.

Dokumentuaren bigarren atalean hezkuntza sistemaren diagnosi kualitatibo bat egiten saiatu gara, zortzi oinarritzko galdera erantzunez. Mundu osoko eskola sistemak aztertzen dituen ikerketa batek pausatutako sei galderei beste bi gehitu dizkiegu, nola gauden eta zer dugun hobetzeko pentsarazten digutenak. Batek baino gehiagok adierazi digu agian ez dela halako dokumentu bat hasteko modurik onena. Baliteke hala izatea, egia da datu zehatzak behar direla egiten diren baieztapenak oinarritzeko. Gure helburua gogoeta sakon baterako ikusmira zabaltea izan da, ez analisi zorrotz bat egitea. Bestalde, hezkuntzako profesional batzuek beren lana epaitua ikusi dute diagnosi horretan. Ez dago halako borondaterik inondik ere. Hezkuntza sistema gainbegiratu nahi izan dugu, parametro kualitatibo

batzuk definitu geure buruak munduko hezkuntza sistema aurreratuenekin alderatzeko oinarri bat eskaini asmoz.

Bigarrenik, badira mehatxuak epe laburrean hezkuntza sistemak kolokan jar ditzaketenak: jaiotza tasaren beherakada, segregazioak eta euskalduntzean gertatzen ari den atzerakada azpimarratu nahi ditugu. 2030. urteari begirako proiektzio demografikoek adierazten dute matrikulazioak asko egingo duela behera datozen urteetan. Gainera, migrazio fluxuek goranzko joerari eustea aurreikusten denez, klase eta jatorriagatiko segregazio egoerak are gehiago gordinduko dira hurrengo urteetan, sistemaren desorekak (egun ikastetxeen %30 inguru ez dira ISEC indizeak eskatzen duen mailara iristen) eta ikastetxeen arteko lehia muturreraino eramanez. Hainbat tokitan kolapsoaren atarian egon gaitzkeela deritzogu. Eta, bestalde, ikerketa ezberdinen argitara, datuak mahai gainean, badakigu atzeraldian gaudela euskalduntzeari dagokionez. Ez da soilik hizkuntza ereduak ez dutela legeak agintzen dituen irteera profilak erdiesteko biderik ematen (Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren azken ebaluazio txostenaren arabera D ereduko ikasleen %53,3ak ez du gaitasun nahikorik lortzen), baizik hizkuntza gaitasunetan atzera egiten ari garela. Euskararen erabilerak ere atzera egin du eskola eremuan.

Hirugarrenik, aldaketa gogoia sumatzen dugu hezkuntza komunitatearen baitan: irakasleengan, gurasoengan, ikasleengan. Uste dugu badagoela kontzientzia bat, zer hobetu badugula, hobe egin dezakegula eta hobe egin nahi dugula. Asko dira behar baino baliabide gutxiagorekin eta baldintza kaskarragoetan hezkuntza-berrikuntzan bidea egiten ari diren askotariko ikastetxeak. Konpromiso komunitario sendo bat dago lan horren oinarrian, hezkuntzako langile askoren bizi-gogoia, egunero-egunero inertziak haus-ten eta beren jarduera berrasmutzen saiatzen diren profesionalen lana. Bide batez, esango dugu, aitortza sozial bat merezi dutela pandemian zehar beren onena eman duten hezkuntza langile horiek, konpromiso komunitario horri esker hezkuntza ez da eten eta euskal gizarteak arnasa hartu ahal izan du.

Azkenik, nahiz sarritan badirudien euskal hezkuntzaren gaineko eztaba-ida kale itsu batean agortzera kondenatua dagoela, hotzean pentsatuta, azken urteetan jauzi kualitatibo baterako nahikoa indar metatu delakoan gaude: eskola askotako esperientziak hezkuntza berrikuntzan; Errenteriakoaren antzeko udal esperientzia komunitarioak; **Hik Hasiren** hezkuntza proposamena; EHIGE eta HEIZEren *Euskal Eskola Publikoa*, gaur, bihar diagnostia, LAB sindikatuaren *Hezkuntza burujabea iruten* txostena; Ikastolen Elkartearen *Endekalogo*a; OinHerriren ahalegina herri hezitzaileak sartzeko. Bada lurzoru partekaturik, aski emankorra, esango genuke. Bide batez, bioakio gure aitortza, baita ere, hezkuntza komunitate antolatuari, ekin eta ekin ari denari herri eraikuntzan, egunez egun, esperantzari eutsiz eta aurrerabideak eskainiz.

Horregatik guztiagatik, euskal hezkuntzaren eraikuntzaren fase historiko berri bat abiarazteko garaia dela deritzogu. Poz handia hartu dugu Eusko Ikaskuntzak antolatu zuen *Ehun zubigile hezkuntza sistemaren etorkizuna elkarrekin lantzen* jardunaldiaren emaitza ikusita. Euskal hezkuntzaz akordio nazional bat egiteko asmoz abiatu den prozesu horri gure babes osoa adierazi nahi diogu, eman deza-keelako aukera azken urteetan metatu den indar sozial hori bildu eta norabide emankor batean askatzeko.

Akordio nazional horren ispiluan begiratu beharko lukete, hain zuzen, mendebaldeko hiru probintziek zein Nafarroak hezkuntza hitzarmenak lantzeko orduan, bakoitza bere baldintza konkretuetatik abiatuz. Baldintza horietako batzuk aldekoagoak izanik mendebaldeko hiru probintzietan, EH Bilduk uste du momentua iritsi dela Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza hitzarmen bat osatzeko.

Eta uste dugu euskal gizartearen gehiengo baten iritziarekin bat egiten dugula hezkuntza hitzarmenak lau ezaugarri gutxienez izan beharko lituzkeela badiogu. Bat, herri ikuspegi landua; euskal hezkuntzaren fase historiko berri bat irekiko duena. Bi, eraldatzailea; hezkuntza sistemaren sakoneko eraldaketa bat abiatuko duena, trantsizio baterako jauzi

Aldaketa gogoia sumatzen dugu hezkuntza komunitatearen baitan: irakasleengan, gurasoengan, ikasleengan. Asko dira behar baino baliabide gutxiagorekin eta baldintza kaskarragoetan hezkuntza-berrikuntzan bidea egiten ari diren askotariko ikastetxeak

kualitatibo bat izango dena. Hiru, bateratzailea; etorkizunaren gaineko ikuspegi partekatu batek gidatua. Eta lau, euskal hezkuntza Europako herrialde aurreratuenen arrastoan jarriko duena.

Hain zuzen, datozen hilabeteetan irekiko den egoera esperantzagarri honen harira ezkerreko soberanismoaren posizio politikoa finkatzeko onartu genuen irailaren 18ko Konferentzia Politikoan hemen aipagai dugun hezkuntza proposamen berritua.

Indarrak batu, euskal hezkuntzaren fase historiko berri bat abiarazteko Egiten dugun proposamenaren abiaburuan badago oinarritzko ideia bat: indarrak batzea. Uste dugu urte gehiegi daramatzagula gure herri-gaitasunak kamusten dituen gatazkan trabatuta, biribilgune batean bueltaka. Gurea bezalako nazio ukatu baten hezkuntza prozesua ezin du desira eta helburu berdintsuak ditugunon arteko eztabaida liskartsuak lastatu. Esan bezala, eraldaketarako beharra dugu, aldaketarako gogoia sumatzen da eta nahikoa indar metatu dugu jauzi kualitatibo bat eman eta fase berri bat irekitzeko. Hala deritzogu, eta uste dugu iritsi dela horretarako momentua.

Proposamen honetara heltzeko bide luzea egin dugu. Iraganeko irakaspenak jasotzen ahalegindu gara, eta hezkuntza komunitate euskaltzale eta aurrerazalearen baitan egon daitez-

Sistemaren erabateko deszentralizazioaren alde egiten dugu, ikastetxeei autonomia aitortuz. Lidergo pedagogikoak ikastetxeen esku behar duela deritzogu, eta baita hartarako beharrezkoa den antolakuntzarako gaitasunak ere

keen ikuspegi ezberdinen arteko zoru komun bat eraikitzen. Badago autoeraketaren tradizioetik datorren emari emankor bat, ekarpen historiko garrantzitsua egin diona euskal hezkuntzaren eraikuntzari. Eta badago sen berdinzale indartsu bat, besteak beste, azken urteetan areagotu den ekitate eta aukera berdintasun faltak soluzio bat galdegiten duela mahai gaineratu duena. Bi emari sortzaile horien baturak urrun eraman dezake euskal hezkuntza, Europako herrialde aurreratuenei parez pare begiratzeraino. Horretarako, guztiok egin behar dugu ahalegin bat; konpromiso historiko berriak hartzeko garaia dela deritzogu.

Proposamen honen hirugarren atalak *Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Burujabea* izendatu dugun helburu estrategikoa definitzen du, herri ikuspegiz lantzen saiatu garena eta Hegoaldeko lau herrialdeei begira pentsatu duguna. Bertan deskribatzen dira euskal hezkuntza sistemarentzat nahiko genituzkeen ezaugarri nagusiak. Ondoren, laugarren atalean, mendebaldeko hiru probintziatarako trantsizio proposamen bat egiten da, aipatu helburu strategikoarekin koherentea den *Hezigune, Euskal Hezkuntza Publiko Bateratua* aurkeztuz.

'Hezigune', lau hankako mahaia

Jarraian, oso modu sintetikoan bada ere, Hezigune proposamenaren funtsa aurkeztzen dizuegu. Gehiago jakin nahi duenak ondorengo helbidean

aurki dezake dokumentua eskuragarri: <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20210919/egungo-dikotomia-gainditu-eta-sare-publiko-bateratua-nahi-du-eh-bilduk>

Lehenengo hanka:

Sistemaren konfigurazio berria

Sistemaren erabateko deszentralizazioaren alde egiten dugu, ikastetxeei autonomia aitortuz. Lidergo pedagogikoak ikastetxeen esku behar duela deritzogu, eta baita hartarako beharrezkoa den antolakuntzarako gaitasunak ere. Ikastetxe autoeratuaren edo autokudeatuaren alde egiten dugu, beraz. Ikastetxe bat hezkuntza proiektu bat, horrek behar du deszentralizazioaren helburuak. Eta hezkuntza proiektu hori hezkuntza komunitatearen parte-hartzearekin osatu beharko litzateke, antolaketa eredu demokratiko baten bidez. Ikastetxe komunitario deritzogu halako ikastetxeari.

Bide horretatik, orain arteko publiko-kontzertatu dikotomia gainditu beharra dagoela deritzogu. Bateratzearen aldeko hautua egiten dugu: ikastetxe komunitario bakoitzak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu beharko luke hezkuntza administrazioarekin, hitzarmen horren corpusa berdina litzateke ikastetxe komunitario guztientzat. Hitzarmen horretan ikastetxeek eta administrazioak konpromiso tasatuak hartuko litzukete beren gain. Horrela, sistemaren parte liratekeen ikastetxeak parekideak lirateke, eskubide eta betebeharrak dagokionez berdinak. Hitzarmen horretan jasotako konpromisoak bere gain hartzeak egingo luke ikastetxe bat publiko, bere izaera juridikoa bat edo beste izan. Ikastetxe bat publiko egingo lukeena ez litzateke, beraz, ikastetxearen izaera juridikoa, baizik eta ikastetxe horrek komunitatearekiko zein konpromiso hartuko litzukeen.

Publikotasunaren kontzeptualizazio honek (publiko-komunitarioa) egiturazko berrikuntzak eskatzen ditu titulartasunarekin zerikusia duten eremu nagusietan: eskola eskaintzaren programazioan, ikastetxeen finantzazioan eta lan-harremanetan. Hiru eremu hauek agertoki bateratu batera eraman behar direla deritzogu.

Sistemaren gobernantza berriaren

parte lirateke Tokiko Hezkuntza Ekosistema Kooperatiboak deritzogunak. Ekosistema hauetan bi maila bereizten ditugu: hezkuntza formala eta ez-formala uztartzen dituzten Hezkuntza Kontseiluak eta eskola eskaintzaren programazio bateratua egiteko tokiko organoak. Azken honi dagokionez, Kataluniako otsailaren 16ko 11/2021 dekretua erreferentzia baliagarria dela deritzogu. Hain zuzen, dekretu honen helburua da klase eta jatorriagatiko segregazioari aurre egiteko esku-hartze efektibo baterako prozedura eta organoak arautzea.

Bigarren hanka: Iraultza pedagogikoa.

Honek eskatzen du sistemaren baliabideak birprogramatzea: eredu zentralista eta, neurri batean, burokratizatu baten baliabide izatetik ikastetxe komunitarioetako hezkuntza proiektuen zerbitzura egongo diren baliabideak izatera pasatzea. Hor kokatzen ditugu Berritzeguneak, ikuskaritza, prospekzioa, ebaluazioa, unibertsitatearen papera eta abar.

Hirugarren hanka:

Euskalduntzean jauzia.

Euskal hiztun eleaniztunak sortzeko eredu eraginkorrena den murgiltze eta mantentze eredu orokortuaren alde egiten dugu. Halaber, hemen ere sistemaren baliabideak birpentsatu beharrean gaudela deritzogu: egun daudenak birplanteatu eta Euskararen Jabekuntzarako eta Euskal Kulturaren Transmisiorako Institutua sortzea proposatzen dugu.

Laugarren hanka:

Inbertsio publikoaren gehikuntza.

Europa iparraldeko hezkuntza sistemen ispiluetan begiratu nahi badugu inbertsio publiko handiagoa behar dugu, zeina Barne Produktu Gordinaren %6an kuantifikatzen dugun. Besteak beste, ratioak jaitea ezinbestekoa zaigu aipatu iraultza pedagogikoa egin nahi badugu.

Labur bada ere, hemen gure proposamenaren oinarriak. Desio batekin agurtzen naiz: Izan daitezela hurrengo hilabeteak euskal hezkuntza komunitateak urte luzetan ereindakoa ernaltzen ikusteko sasoia.


ARGITALPENAK



30 URTE MIHIGINTZAN
Txerra Rodríguez

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Euskara elkarteek euskararen biziberritzeari dagokionez egin duten lana eta horren emaitza aztertu ditugileak *30 urte mihigintzan*. *Euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan duten eragina 1987-2017* liburuan. Euskara elkarteetan aritu den jendearen ahotsa jaso du eta etorkizunerako proposamen praktikoak bildu ditu.



TANTAK ALDIZKARIA
Hainbaten artean

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

33. alean sei gai landu dituzte: zientzia-hezitzaile feministak, COVID-9ak Bigarren Hezkuntzan izan duen eragina, Ikaskuntza-Zerbitzua, Golden 5 elkarbizitza programa eta Hegoaldeko Haur eta Lehen Hezkuntzako eleaniztasuna hizpide izateaz gain, berrikuntza prozesuetan irakasleak duen garrantzia aztertu dute.



UR ETA LUR
Yolanda Larreategi - Eider Eibar

EREIN

Adiskidetasunaren gaia landu du Larreategi liburu honetan. Auzardiaz beterik, motxila lepoan hartu eta bere bizitzako ametsa egi bihurtzeko erabakia hartuko du Lur apoak. Bidean, Ur igela ezagutuko du, pertsonaia arraro eta maitagarria, eta bien arteko adiskidetasunari eta elkarlanari esker lortuko dute euren ametsak betetzea.



EUSKAL HERRIA HELBURU
Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegik'

TXALAPARTA

Lehen pertsonan idatzia, gerraostean jaiotako belaunaldiko kide baten testigantza jasotzen du liburuak. Herriari eta hizkuntzari buruzko ideiak nola sortu eta mamitu zituen azaldu nahi izan zuen Txillardegik bere lanean. 1994an argitaratu zen lanak ez du gaurkotasunik galdu eta Txalapartaren eskutik heldu zaigu berrargitalpena.



NOR IZAN NAHI ZENUKE?
Arianna Papini

PAMIELA-KALANDRAKA

Rebekak arrain izatea du amets; arrainak hontza izatea; hontzak krokodiloa miresten du, eta horrela, bata betearren atzetik, bukaera zirkularra izan arte. Irudimenari esker eta jolasari esker, nahi duguna izan gaitezkeela esaten digu liburuak. Arianna Papinik irudi lau eta eskematikoak egin ditu collagearen teknika erabilita.



ANIMALIEN LIBURU HANDIA
Anne-Sophie Baumann - Éléonore Della Malva

TTARTTALO

Egileek animalien bizimodua aztertu dute, mundua ikusteko duten era. Modu berezian ezagutuko dituzte haurrek animalien ezaugarriak eta euren bizitzaren nondik norakoak; tximeleta baten bizi-zikloa, balearen eskeletoa, erleen eta arranoen ikusmena edota otso baten eztrari-zuloa.

PROPOSAMENA

Pump track-ak

Gurpil gainean saltoka eta bueltaka

Gero eta gehiago zabaltzen ari dira Euskal Herrian pump track direlakoak. Gurpilen gainean ibiltzeko zirkuituak dira, bizikletan, patinetean... Bertan, aldapan gora eta behera, aurrera eta atzera ibiltzen dira haurrak zein helduak. Izan ere, kirola egiteko leku aproposa dira eta adin eta maila guztietako pertsonak ibil daitezke zirkuituan bakarka, taldean zein familian. Eskolako irteerak egiteko aukera berria izan daiteke, mugikortasunaren aldekoa eta, gainera, doan.

Haurrek zein helduek kirola egiteko leku aproposak dira pump track-ak. Bihurguneak, aldapak, jauziak... Irregularitasunez betetako zirkuituak dira eta lurrarekin, egurrarekin edo asfaltoarekin egindakoak izan litezke. Gainera,





pump track bakoitzak kokalekuaren araberako berezitasunak ditu. Izatez, mendiko bizikletekin ibiltzeko zirkuitu txikiak dira, baina patinekin edota patinetearekin ere ibil daiteke bertan, edozein motako gurpilen gainean ibiltzeko baitira.


Euskal Herri luze-zabalean gero eta ohikoagoa da herri barruan zein kanpoaldean pump track-ak ikustea, eta eskolako nahiz eskolaz kanpoko jarduera aproposa izan daiteke adin guztietan haur eta gaztetxoentzako. Gainera, mugikortasunaren eta jasangarritasunaren mesedetan, eskola-inguruetik pump track eremura berera bizikletaz edo patinetez bide gorritik joatea ere ariketa erantsia izan daiteke irteera egun baterako.

Haurrek kirola segurtasunez egin dezakete pump track-etan —beti ere kaskoa eta behar diren babesgarriak jantzita— eta zirkuitua nahi duten moduan egin dezakete; norberak bere mailara eta gaitasunetara egokitu baitezake pistaren erabilera. Haur eta

nerabe bakoitzak bere gaitasunak eta mugak ezagutzeko baliagarriak dira gisa honetako zirkuituak. Mendira joan gabe, zirkuitu itxi batean, aldapetan gora eta behera ibiltzeko aukera ematen diete pista horiek; norbere gaitasunen arabera ibiltzen da kirol jarduera dibertigarriaz gozatuz eta lehiakortasunik gabe. Koordinazioa eta psikomotrizitatea lantzeko espazio ezin hobekak dira eta kirola aire zabalean egiteko aukera ematen dute.

Soin-heziketako orduetarako ez ezik, txango bat antolatzeko leku egoki bilakatu dira pump track-ak.

Gero eta pump track gehiago daude Euskal Herrian eta gero eta jende gehiagok erabiltzen ditu; adin eta maila guztietako pertsonak ibiltzen dira gurpil gainean. Batzuek aisialdirako erabiltzen dituzte eta beste batzuek, berriz, entrenamendurako. Besoen eta hanken bidez inertzia eta orekari eustea da gakoa. Eta batez ere, ongi pasatzea.




Pump-track ugari eskura

Bi hamarkada dira AEBtan eta Australian lehenengo pump track-ak sortu zirela eta Euskal Herrian gero eta gehiago zabalitzen ari dira. Trapagaranen egin zuten lehena 2014 urtean eta ordutik hona etengabe ari da hazten pump track kopurua gurean. Trapagarangoaz gain, **Bizkaian**, Ugao-Miraballesen, Zornotzan, Karrantzan, Barakaldon, Atxondon, daude, besteak beste, eta Abadiñon 2022 hasieran hasiko dira bertako pump track-a eraikitzeke lanak. **Gipuzkoan**, esate baterako, Astigarragan, Legorretan, Beasainen, Villabonan, Legazpin, Idiazabalen edota Donostian, daude. **Euskal Herriko herrialde guztietan** aurki daitezke; Iruñean, Igantzin, Gasteizen, Hendaian, Donapaleun... badira pistak dagoeneko. Amikuzen urte honen amaieran eraikitzen hastekoak dira.

Batzuek zirkuitu bakarra dute eta beste batzuek gehiago. Beasainen, adibidez, haurrentzako eremua eta helduentzako eremua bereizi dituzte.

ATZEKO ATETIK



NIRE AMETSETAKO ESKOLA

EKIÑE LOPEZ OLABARRIA
LAUDIOKO INSTITUTUKO IKASLEA

Ez diot inoiz nire burari horrelako galdera bat egin, seguraski, hezkuntzaren munduan behin sartuta konturatzen zarelako oso zaila dela buruan dituzun pentsamendu eta ideia horiek guztiak errealitatera trasladatzea.

Ametsetako eskola deskribatu baino lehen, guztiontzat den kalitatezko espazio bat bezala ulertzen dut nik, bazterketarik egiten ez duena eta ikasle guztiak erdigunean jartzen dituen, haien beharrak kontuan hartuta. Denbora aurrera joan ahala, bakoitzaren eskolaren esanahia aldatuz doa, hainbat zailtasun, oztopo... agertzen baitira bidean.

Orain arte esandakoa alde batera uzteko eta, benetan, ametsetako eskolaz hitz egiteko momentua dela uste dut. Nire ametsetako eskolan, ez dira arrazakeria, erritmo itogarriak, klase magistralak eta botere

harremanak onartuko. Aurretik esan bezala, denontzat kalitatezko lekua izango bada, errespetua bermatzea beharrezkoa dela uste dut. Berdintasun honek, besteekiko tratu atsegin eta errespetuzkoa exijitzen du, balore garrantzitsua da besteekin elkarbizitzeko gure egunerokotasunean.

Nire ametsen eskolako klase guztiak ez dira neketsuak izango, hau da, ez ditugu zazpi ordu pasako pantaila baten aurrean apunteak hartzen, aisialdirako, harremanetarako... espazioa egongo da. Hau da, ikaslearen beharretara egokituko den eskola da. Nire ametsetako eskolan, ez dira sei orduko ordutegi zurrunik egongo, ikaslearen lasaitasun orduak eta atsedendialdiak kontuan hartzen direlako.

Nire ametsetako eskolan, ikaslea, hezkuntza prozesuaren erdigunean

jartzen da; interesa pizten da ikaslearengan; ikaslea ez da zenbaki bat bezala tratatzen; borobilean esertzen gara eta guk irakaslearengandik ikasten dugun bezain beste ikasten du irakasleak gugandik; ikasle-irakasle harremana paregabea izango da.

Nire ametsetako eskolan hausnarketa beharrezko faktorea izango da, ez dira eduki zurrunik buruz ikasi beharko, ulertu baizik. Hori izango da hausnarketaren funtzio nagusia, aurretik ikasitakoa bereganatzea. Gainera, talde-lana sustatuko da, ideia trukaketekin eta eztabaidekin lan eginez.

Ametsak egi bihurtuz eta denon artean borrokatuz, ametsetako eskola lortuko dugu; Euskal Eskola Herritar eta Burujabea, euskalduna, feminista, publikoa eta hezkuntza komunitate guztiak eraikia.



etb 1 Larunbatero, 13:30ean

etb 2 Igandero, 13:30ean

teknopolis.elhuyar.eus



BABESLEAK



Anna Ramis

Zer zentzu dute
pantailak Haur
Hezkuntzan?



Alvaro Beñaran

0-6 urteko haurrek badituzte
baliabide psikiko egokiak
pantailen aurrean aritzeko
eta hor jasotzen dutena
kudeatzeko?



Amaia Arroyo

Sagasta

Pantailak 0-6 adin tartean:
gidaritza digitalaren
beharra azalarazten

Pantailak 0-6an. Zertarako?

Azaroaren 19an, BECeko auditoriumean

Azaroaren 20an, Zumaiaiko
Zumaiena ikastetxeko aretoan

